

ASTEARI ZEHARKA BEGIRA

Ez da gotorturik geratzeko garaia

IÑAKI ALTUNA > 11

INDEPENDENTZIAZ HAUSNARTZEN (I)

Andoni Olariaga: «Hautsi da anphora, erresistentziatik eraikuntzara» > 22

2016ko otsailaren 13a | X. urtea • 455. zbk.
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



VI. MENDEKO KLIMA ALDAKETATIK IKAS DAITEKEENA

SUMENDIEN ERUPZIOEK KLIMA NABARMEN
ALDATU ZUTEN VI. MENDEAN, HISTORIA
LIBURUEK AIPATZEN DITUZTEN MAKINA BAT
GERTAERA AHALBIDETUZ. ORDUKO
KONTUETATIK ASKO DUGU IKASTEKO GAUR
EGUNGO GIZAKIOK. > 4 GAUR8

Sumendiek VI. mendean egin zutena aztertu, egun gizakiok eragiten duguna ulertzeko 04

Milioi bat laguni iruzur egin die Txinako Ezubao konpainiak 8

Euskalkiak.eus, ahozkoan bizirik dauden hizkerak bistaratzeko 12

Infozazpik hamar urte, herritik sortua den irrati profesionala 17

E.lkarrizketa: Andoni Olariaga, erresistentziatik eraikuntzara 22

Haur elikaduran okerreko uste asko behera botatzen dabil Iñaki Irastorza pediatra 26

In Fraganti: Lore Amenabar, musikaria 28

Juantxo Egañaren behatzulotik 31



SINADURAK:

- 03 **Iratxe Urizar:** Pertsonala publikoa da
- 10 **Unai Fernandez de Betoño:** Golfaren turismoa
- 11 **Iñaki Altuna:** Ez da gotorturik geratzeko garaia
- 15 **Xabier Mikel Errekondo:** Mozorroak
- 16 **Amaia Ballesteros**
- 19 **Maider Iantzi:** Zorionak, maitea!
- 20 **Gorka Zozia:** Unibertsoaren sinfonia entzungai
- 21 **Garazi Goia:** Poesiak, errutinak eta sorpresak
- 30 **Iratxe Esnaola:** Mugikorrarekiko menpekotasuna antzerkira



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILAK
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZAK) DIRUZ LAGUNDUA



Gipuzkoa
BERRIA

{ datorrena } Iratxe Urizar

Pertsonala publikoa da

Angela Davis Euskal Herrian izan da, eta jardunaldia antolatzen ibili ginenean aurreikusitakoa baino askoz eragin sakonagoa izan du bere bisitak, hainbat zentzutan inflexio-puntua izan dela iruditzen zait: ekarpen izugarriak egin dizkigute Angelak berak, Paulette D'Auteuilek eta Jihad Abdulumitek, bost egun intentsuetan, emakumea eta kartzela ardatz.

Euskal Herriko Mugimendu Feministari dagokionez, ekimen bakoitza oso-oso labur geratu bada ere, izugarri aberasgarriak eta maila handikoak izan dira: hausnarke-ta eta kritika zorrotz-zorrotzean aritu dira parte hartzaileak, baieztapen absoluturik egin gabe: eztabaida eraikitzailearen aldeko jarrera izan da nagusi. Zalantzak eta ziurtasunak mahaigaineratu, eta horien guztien inguruko iritzi truke emankorra gertatu da.

Horixe zen, hain zuzen ere, "Emakumeak kalera! Emakumea eta kartzela" jardunaldien xedea. Asko hitz egin badugu ere presoei buruz, oso gutxi egin dugu-eta espetxeak eta erakunde patriarkal eta zapaltzaile horrek dakarrenari buruz. Berrirori ere, eztabaidarako aukerak mahai gainean, baina inongo irizpiderik inposatzeko asmorik gabe. Ados ez zeudenen arteko elkar ulertzerako ariketa aberatsa hainbat unetan.

Davisek planteamendu integraletik abiatzen duen abolizionismoa izan da nobedade aipagarrienetakoa. Abolizionismoa modu globalean: Estatuak bere indarkeria gauzatzeko duen tresna da espetxea, eta espetxe horren beharrik ez duen gizartea eraiki behar dugu. Asmo utopikoa liteke, baina, Angelak berak dioen bezalaxe, «utopiak aldarrikatu behar ditugu, ahanzturan eror ez daitezen, etorkizuneko belaunaldiak horien berri izan dezaten, horien alde borrokatzen jarrai daitezen. Aldarrikatzeari uzten badiogu, ezerezean geratuko dira». Abolizionismoak, hala ere, beti topatzen du oztopo berdina eta horrela aterazen ere hainbatetan publikoaren interbentzioetatik: abolizionismoa ikuspegi feminista batetik aztertuz, zer egin sexu erasotzaile eta abusotzaileekin? Espetxeak ez dio arazari konponbiderik ematen, ados, baina orain eta gizartea iraultzea lortu arte, zeintzuk dira alternatibak? Ez dugu erabili nahi estatuek gizartearen aurka erabiltzen duten biolentzia, ez dugu kartzelari eta errepresioegile bilakatu nahi. Baina xede nagusia baldin bada pertsona horiek berrirori gizarteratzea, zer egin gizarteak ez baditu bueltan nahi, gizarteak ez badu sinesten aldatuko direnik?

Lehen harria jarri diogu luze joko duen eta jo behar duen bideari. Eztabaidek bizi eta intentsuak beharko dute izan gainera, eraikuntza nazionalaz ez ezik, gizartea eraikitzeaz ere arituko bagara. Eta abiapuntua, ezinbestean, ikuspuntu feminista eta iraultzailea izan beharko da.

Inpresionatzen du Davisek: altua, ahots sakonekoa, diskurtso sendokoa eta jarrera irmokoa, hainbat gairi buruz aritzean. Berezko indarra dario. Bizitza esperientzia eta prestakuntza zabaleko emakumea da, eta, badaki norra doan, muinera jotzen du beti, ez da azalean geratzen den horietakoa, jakin mina du inguratzen duen guztia-ekin. Hizkuntzaren garrantziaz jabetuta, euskarazko hitzak ikasten saiatu da, aukera izan duen bakoitzean. Bere internazionalismoa. Beste borroka batzuekin bere elkartasuna, borroka horiek gureak ere badirela erakutsi digu.

INTELIGENTZIA EPIDERMIKOA

Bidebarrietako Angelatik Guggenheimeko fokuetara. Donostiako saio aparta, emakumeek hasiera eta bukaera arte aurkeztu eta zuzendutakoa eta euskara hutsean; hain ezohikoa (zorritzarekin) non ez zitzaion inori oharkabea pasa. Logroñoko espetxera egindako bisita, nazioarteko prentsan oihartzun itzela izan duena. Kafe Antzokiko jaia, non Davis banan-banan hurbildu baitzitzairen parte hartzaile guztiei, eskerrak emateko beren hitzengatik, beren doinuengatik. Biarritz, Euskal Herriko bazter horretan gaztaroan bizi izandako denbora oroitzuz itsasoari so, eta Paulette D'Auteuil indioen errituala eginez geure Kantauri itsasoan (lehengusu duen Leonard Peltier preso politikoarengandik ikasia, seguruenik). Preso politikoen alde. Preso politikoak une oro bihotzean eta ahotan, hiru gonbidatu zoragarri aldarrikapenetan. Gernika, Astra, bombardaketatik bizirik irten zirenekin topaketa. Bisita ahaztezinaren une intimoak eta une publikoak.

"Gure laguna da" baino, egunotan ikasi dudana "inteligentzia epidermiko" kontzeptuarekin geratuko naiz. Elkar ezagutzen dugula larruan sentitzea. Elkar ulertzen dugula, elkarri begiratu eta badakigula zeri buruz ari garen. Jakin bagenekien Angela Davisen bisitak eragin sakona izango zuela. Uste genuena baino sakonagoa eta indartsuagoa izan da ordea. Hitz egiteko eta hausnartzeko egunak bizi izan ditugu, adostasunak erdiesteko egunak, inguruan desadostasuna nagusi den garaiotan. Behingoa serio hitz egiten hasteko gogo piztu digu honek guztiak. Elkarrekin. Goazen eraikitza. •

«Inteligentzia epidermiko» kontzeptuarekin geratuko naiz.

Elkar ezagutzen dugula larruan sentitzea. Elkar ulertzen dugula, elkarri begiratu eta badakigula zeri buruz ari garen

{ txostena } Jose Angel Oria

KLIMA ALDAKETA

Sumendiek orain hamabost mende egin zutena aztertu, egun gizakiok eragiten duguna ulertu ahal izateko

660

Ulf Buntgen ikerlariak Austriako Alpeetako zuhaitzak aztertu zituen bere garaian, eta, orain, Siberiako 660 laritz, Altai mendikatean gehien ikusten den arbola alegia. Horien eraztunen azterketan oinarrituta, ondorioztatu du zein tenperatura zegoen aztertutako epeko urte bakoitzean.

536

Poloetatik ateratako izotz zilindroetan harrapatuta geratutako errautsek diote erupzio bizien artean 536. urtekoa dagoela, handik lau urtera (540) beste bat izan zela eta tankerako hirugarren erupzioa 547an iritsi zela.

VI. mendeko hotzaldia sumendien erupzioek eragin zutela uste dute ikerlariak. Irudian, Mexikoko Popocatepetl sumendia.

GAUR8

Eztabaida horretan esku hartzeko argudio gehiago eskaini dizkigute orain zuhaitzek eta izotzetan harrapatutako errautsek eskaintzen dituzten mezuak irakurtzen ikasi dutenek. Zuhaitzek ez digute ezer esaten, ez guk entzuteko moduko ezer bederen, baina Ulf Buntgen Suitzako Ikerketa Institutu Federa-leko ikerlariari gauza asko adie-

razi diote, kasu batzuetan, edo aditzera eman diote, beste batzuetan. Buntgenek Austriako Alpeetako zuhaitzak aztertu zituen bere garaian, 2011n “Science” aldizkariak argitara eman zuen artikulua idatzi ahal izateko, eta, orain, berriz, Siberiako 660 laritz aztertu ditu, Altai mendikatean gehien ikusten den zuhaitza alegia. Arbolen

eraztunen azterketan oinarrituta, zientzialariek ondorioztatzen dute zein tenperatura zegoen urte bakoitzean.

Dendrokronologia zuhaitz-enborraren ebakiduran agertzen diren eraztunak irakurrita zuhaitzaren adina eta historia ezagutzea da, Zientzia.eus atariaren arabera. Eraztun horiek dituzten zuhaitzek beren bizitza eta historia idatzita daramatela esan daiteke eta, pausoz pauso, historiako liburu baten orrialdeak bezala aztertu eta irakurtzea besterik ez dago.

HIRU ERUPZIO

Altaiko kasuan (Mongolia, Txina, Kazakhstan eta Errusiak bat egiten duen puntuan dago mendikatea, Alpeetatik ia 8.000 kilometrora), klimatologoek ikusi dute 172 eta 1821 urteetako udak besteetakoak baino askoz ere hotzagoak izan zirela (gaur egun baino 4,6 gradu gutxiago). Aipatu bi urte horietan, sumendiek sekulako erupzioak izan zituzten, eta horrek esplikatu luke tenperaturak orduan behera egin izana.

Alpeetako eta Altaiko tenperaturekin egin zituzten grafikoek beste gauza harrigarri bat erakutsi dute: 536tik aurrera tenperaturak behera egiten hasi zirela, bai Austrian bai Siberian. Horrela, 540. urtean hasten den hamarkada Altaiko hotzeta izan zen, eta, Alpeei dagokienez, bigarren hotzeta.

Tenperaturaren bilakaera ezagutzeko zientzialariek zuhaitzen eraztunei begiratzen badiete, sumendien erupziorik bizienak noiz izan ziren jakiteko izotza aztertzen dute, zehazki poloetatik ateratako izotz zilindroetan harrapatuta geratutako sumendi errautsak. “Nature” aldizkariak esplikatu zuen iaz artikuluan batean erupzio bizien artean 536. urtekoa dagoela, eta handik lau urtera (540) beste



Hiru klima aldaketa bizi behar izan ditu gure planetak azken hamabost mendeotan, gaur dakigunaren arabera. Gaur egun bizi duguna gizakion jarduerak eragin du eta planeta berotzen ari da. Zientzialariek oso dokumentatuta dute XIV. mendean hasi eta XIX. mendean bukatu zen Izotz Aro Txikia: arrazoi naturalek eragin zuten eta Europa hoztu egin zuen, Historiako makina bat gertaera ahalbidetuz (Frantziako Iraultza barne). Orain adituek esaten digute VI. mendean hasita hiruzpalau mendetako iraupena izan zuen hotzaldia ere bizi izan zuela Lurrak, sumendien eraginez.

Klima aldaketak sekulako eragina izan du iraganean gizakien jardueran, Historian izan ditugun makina bat giza mugimendu, gatazka, ohitura berriak eta abar eraginez. Gaur egun bizi dugunak ere sekulako kalteak eragin dizkie milioika lagunei, batez ere herrialde pobretuenean, nahiz eta oraindik maizegi entzuten diren klima aldaketa ukatzen dituzten diskurtsoak. AEBetako Alderdi Errepublikanoko hautagai izateko kanpaina betean den Donald Trump enpresariak, esaterako, honakoa esan berri du: «Txinak asmatu du klima aldaketa, amerikar industria kaltetzeko». Alderdi bereko Ted Cruz muturreko kontserbadoreak behin eta berriz esan du zientzialariek ez dutela arrazoirik eta datuak nahita nahastu ditu, estatubatuarrek (eta beste lekuetan «negazionista» horiei kasu gehiegi egiten dietenek) ezjakintasunean murgilduta jarrai dezaten.

ZUHAITZEK ESANDAKOA

Noam Chomsky AEBetako pentsalariak “La Jornada” Mexikoko egunkariari esan berri dio Alderdi Errepublikanoak beroketa globala bizkortu egin nahi duela. «Ez naiz arazoa puzten ari; horixe da egin nahi dutena. Literalki esango dut: ez gara guztiok hilko, baina era duinean bizitzeko aukerak suntsituta geratuko lirake».

bat izan zela gaur egun El Salvador dagoen lekuan. Tankerako hirugarren erupzioa 547an izan zen, baina adituek ez dakite oraindik zein sumenditan.

Izotz erregistroen arabera, lehenengo bi erupzioek benetako negu bolkanikoa eragin zuten. Izan ere, sumendiak esnatu eta laba eta errautsa botatzen hasten direnean, partikula txiki ugari (sulfato aerosolak) sartzen dira atmosferara, Eguzkitik datorren argiari bidea itxiz. Horrek eragin zuen Antzinako Berantiarreko Izotz Aro Txikia (LALIA, ingelesezko siglak).

XIV. MENDEKO HOTZALDIA

Zientzialariek izen hori aukeratu zuten, lehenagotik asmatuta zegoen Izotz Aro Txikian (IAT, euskarazko siglen arabera) oinarrituta. Wikipedia entziklopediak esplikatzen duenez, «IAT izotz denboraldi bat izan zen, Erdi Aroko Beroaldia deituriko sasoi bero baten ostean gertatu zena. Ez zen benetako izotz aro bat izan, baina izen horrekin sartu zuen literatura zientifikoa François E. Matthesek, 1939an. Klimatologoak eta historialariak ez dira ados jartzen denboraldi hori noiz hasi eta noiz bukatu zen, tokian tokiko kondizioen arabera data aldakorak baitira. Batzuen ustez XVI. mendetik XIX. mendera iraun zuen; beste batzuen ustez, 1300 ingurutik 1850 ingururaino. Honako urteak dira tenperaturarik hotzenak ageri dituztenak: 1650, 1770 eta 1850. Haien artean beroaldiak gertatu ziren. Zientzialari askok uste dute IAT fenomenoaren Ipar Hemisferioan baino ez zela gertatu».

Tenperaturek behera egin izanak erabat aldatu zuen Europako eta Asiako paisaia. Eta paisaiarekin batera, gizakien bizi baldintzak. Tankerako zerbait gerta daiteke gaur egun abian den klima aldaketarekin ere. Horregatik da hain interesgarria Past Global Changes (PAGES) nazioarteko proiektuko zientzialariek esaten dutena; edo aditzera ematen dutena.

Paisaia erabat aldatu zuen hotzak, eta glaziarrek hazi egin ziren. Beraz, ereiteko moduko lur

Klima aldaketak dagoeneko
Nigeriako milaka lagun
bizitza suntsitu du,
basamortua hazi egin baita.
Txad lakua ia lehortuta
dago, eta nekazari eta
abeltzainek euren
bizimodua aldatu behar
izan dute ezinbestean.
GAUR8

6.

mendean, Justiniano (483an jaio eta 565ean hil zen) Bizantziar Inperioko enperadore zela, izurri bubonikoak sekulako sarraskiak eragin zituen Europan, jendeak gosea pasatzen zuelako. «Justinianoren izurritea» deitu zioten gaixotasunari eta hurrengo mendeetan milioika lagun hil zituen.

gutxiago zegoen, baldintza okerragoak nekazaritzan aritzeko, eta elikagai gutxiago tripa betetzeko. Eta janaria falta denean, gaixotasunak iristen dira, XXI. mendean bezalaxe VI. mendean

JUSTINIANOREN IZURRITEA

Justiniano (483an jaio eta 565ean hil zen) Bizantziar Inperioko enperadore zela, izurri bubonikoak sekulako sarraskiak eragin zituen ia Europa osoan (Euskal Herriko Pirinioetako eremu batzuk salbatu ziren, egungo mapen arabera), jendeak gosea pasatzen zuelako. “Justinianoren izurritea” deitu zioten gaixotasunari eta hurrengo mendetan milioika lagun hilko zituen. PAGES proiektuko ikerlariek aditzera ematen dute VI. mendean hasitako hozte prozesuak eragina izan zuela Bizantziar Inperioren erorketan (harri garria da VI. mendean hain aulduta geratu zen inperioak, XV. mendera bitarte eustea, baina hipotesi hori eskaini dute egileek). Gainera, izoztutako lu-

rretan bizi zirenek ihes egin behar izan zuten, eta hegoaldean bizi ziren herriei bultzatzea zieten, gerra eta borrokak eraginez.

Gaur egun tankerako fenomenoak bizi dituzte Afrikako Nigerian, esaterako. Kasu honetan tenperaturak gora egin du, ez behera, eta, glaziarrek hazi beharrean, Saharako basamortua da hazi dena. Drew Poveyk Afriquesenlutte.org webgunean idatzitako duenez, «klima aldaketa jada hemen dago eta Nigeriako milaka lagun bizitza suntsitzen ari da».

TXAD LAKUA

Saharak aurrera egin du, eta Txad lakuak atzera. Aipatu aintzirak uraren %95 galdu zuen 1963tik 1998ra, eta gaur egun okerrera egiten jarraitzen du. «Afrika osoko ur eremurik handiena zen garai batean Txad lakua eta horren desagertzeak inguruetako herrietan sekulako eragina izan du. Nigeriako iparraldeak bizi duen pobrezia erazoi nagusietako bat, baita

Boko Haram talde jihadistaren hazkundearena ere, klima aldaketa da», Poveyren arabera.


Lehortearen eraginez, nekazariak eta artzainek hezetan gehiagoko lurretara egin zuten ihes, bertan bizi direnen kalterako. Jos probintzian eta inguruetan oso borroka gogorak bizi izan dira, klima aldaketak eraginda. Herritar askok hegoaldeko hirietara joatea aukeratu dute (Kano, Abuja eta Lagos), erabateko miseria bizitzera.

Txad lakua lehortearen arrantzale askok beren ogibidea ere galdu egin dute. Orain hamarkada batzuk hegoaldeko hirietako azokatan lakuko arrainak ziren salmenta nagusia, baina, gero eta gutxiago harrapatzen hasi zirenez, prezioek gora egin zuten, eta nigeriar gehienentzat produktu garestiegia bihurtu zen. Nekazaritzaren bilakaera ez da hobea: 1993an Nigeria osoko artatxikiaren %50 baino gehiago eta basartoaren %25etik gora lakuaren eremuan ekoizten ziren, baina ekoizpenak behera



Orrialde honetan, Arabiar penintsulako gameluak (goian) eta Siberiako laritzak (behean). Hurrengo orrialdean, Islandiako Vatnajökull glaziarra.

GAUR8



%33

Energia ekoizpena ere kaltetu du klima aldaketak Nigerian. Kanji, Jebba eta Shiroroko zentral hidroelektrikoek ur gutxiago dute energia lortzeko, eta herrialdean kontsumitzen den energiaren herena kinka larrian dago.

2003

Putinek honakoa esan zuen 2003an: «Tenperatura beroagoek ahalbidetuko dute errusiarrek larruzko berokiak erosten diru gutxiago gastatu behar izatea eta gariaren ekoizpenak gora egitea. Eskerrak Jainkoari!»

egin zuen lehortearen eraginez, salneurriek gora, eta pobreak ere bai. Oraindik euria egiten duen lekuetan ere, nekazariak ez du jakiten noiz erein produktua. Hala, hegoaldeko leku askotan galera ekonomiko handiak izaten dituzte nekazariak.

NIGER IBAIAREN DELTA

Energia ekoizpena ere kaltetu du klima aldaketak. Kanji, Jebba eta Shiroroko zentral hidroelektrikoek ur gutxiago dute energia lortzeko, eta herrialdean kontsumitzen den energiaren herena kinka larrian dago.

Nigeriako kasuak klima aldaketarekin batera datozen beste fenomenoak azaltzeko ere balio du. Izan ere, iparraldeak lehorte jasaten duen bitartean, he-

goaldean euri gehiago egiten du eta uholdeak izan dira, ekaitza bortitzak, haizete ikaragarriak, lurjausiak... Baita tsunamiak ere, itsasoak 50 cm egin baititu gora, Niger ibaiaren deltako eremuko 3.400 kilometro koadro bereganatzeko. Herritar askok alde egin beharra izan du. Uste da deltak beste 15.000 kilometro karratu galduko dituela 2100 bitartean, eta bertan bizi direnen %80 (14 milioi pertsona) kaltetuko dituela.

Gaur egungo migrazioetako batzuk klima aldaketak eragin dituen moduan, adituek uste dute orain hamabost mende ere tankerako fenomenoak eragin zituela sumendiek ekarritako hotzaldiak. Ulf Buntgen ikerlariak onartzen du arrazoi klima-

tikoak efektu politikoekin lotzeko garaian arretaz ibili behar dela, kontuan hartu beharreko aldagai asko baitaude, «baina harrigarria da klima aldaketa hura leku ezberdinetako gertaera handiekin bat etortzea».

Siberiako zuhaitzek emandako informazioarekin klimatologoek, naturalistek, historialariek eta hizkuntzalariek mapak egin dituzte: ondorioztatu dute sumendiek hotza eta goseteak eragin zituztela European, eta goseak, izurriteak.

ARABIAHARRAREN GAMELUAK

Baina hegoalderago gauzak oso bestelakoak izan ziren. Arabiar penintsulan euri gehiago egiten hasi zen, eta basamortu zena berdetu egin zen. Ikerlariak adi-

tzera ematen dute gameluak elikatzekeo janari gehiago izateak eragin zuela armada arabiarrek indartzea (abere hori ezinbestekoa zuten), eta horrek ahalbidetu zuela Mahomaren ideia berriak (islama) defenditzen zituzten tropek horrenbeste lur bereganatu izana.

Asiako beste muturrean ere, ipar-ekialdean alegia, giroa nahastu zuen sumendiek eragindako klima aldaketak. Asiako erdialdeko tribuak belardirik gabe geratu zirenez, ekialderantz eta hegoalderantz mugitzen hasi ziren. Txinako agintarien aurka borrokan hasi ziren, eta, zeharka bada ere, Txinaren batasuna bera ere ahalbidetu zuten ekialdean. Hegoaldean, berriz, estepako herriek, Bizantziar Inperioaren laguntzarekin, Sasiar Inperioaren (bigarren pertsar inperioa) erorketa eragin zuten.

Gero eta elementu gehiago daude mahaiaren gainean klima aldaketak eragingo dituen efektuen larritasunaz jabetu gaitzen. Hala ere, ohikoa da oraindik agintari batzuek oso era arinean aipatzea arazoa. Vladimir Putin Errusiako presidentek, esaterako, honakoa esan zuen 2003an: «Tenperatura beroagoek ahalbidetuko dute errusiarrek larruzko berokiak erosten diru gutxiago gastatu behar izatea eta gariaren ekoizpenak gora egitea. Eskerrak Jainkoari!».

Horrelako jarrerak, arinkeria horrek, ez dute batere laguntzen gizakiok gaia behar bezala aztertu eta neurri egokiak har ditzagun. Gainera, klima aldaketak dagoeneko eragin dituen klima iheslariak (Florent Marcellesi europarlamentariak idatzi du 2011. urtean ingurumenarekin zerikusirik zuten fenomenoek 40 milioi iheslari eragin zituztela) ezikusiarena egiteko joera indartzen da (datozen hamarkadetan 1.000 milioi klima iheslari izatera iritsiko garela aurreikusten dute ikerlari batzuek).

Egunkarietan horrenbeste leku izaten duen Siriako gerra bera ere, neurri batean, klima aldaketak eragin zuen, “The New York Times” egunkarian Thomas L. Friedmanek esplikatu duenez.

BEROKETA GLOBALAK SIBERIAKO HOTZA EKAR DEZAKE EUROPARA

Izotz Aro Txikiak sei mendeko iraupena izan zuen, egile batzuen arabera, eta milioika pertsona hil ziren hotzez. Europan makina bat glaziar sortu ziren eta ibaiek denbora asko egiten zuten izoztuta. Iparraldeko eskimalak Eskoziaraino iristen ziren beren kayak arraun-ontzi estu eta arinetan. Gero eta ikerlari gehiagok esaten du Felipe II.a errege espainolak bidalitako Itsas Armada Handi eta Txit Zorionekoa –espainiar erregeak jarritako izena, Itsas Armada Garaiezina ingelesten arabera– ekaitz ikaragarri batek suntsitu zuela, ez ingelesten tropek. Eransten dute hotzaldiak eragindako baldintzen ondorioetako bat Napoleonen tropen Errusiako porrota izan zela. Europako iparraldeko herriek ardoa baztertu eta garagardoa eta whiskia edaten hasi ziren, zerealek

hobeto eutsi baitzioten baldintza berriei mahastiek baino. Erdi Aroko Beroaldiaren ondoren iritsi zen Izotz Aro Txikia. 900. urtetik 1300. urteraino, gutxi gorabehera, aurreko mendeetan baino bost bat gradu gehiago izan zituzten (hiru eta zazpi gradu arteko beroketa aipatzen dute egileek). Feudalismoa zen nagusi eta beroaldi hark ahalbidetu zituen hirien sorrera, merkataritzaren hazkundera eta Eliza katolikoaren sendotzea, esaterako. Gauzak gero eta hobeto zeudela zirudien, gaixotasunek atzera egin zuten, eta, populazioak, gora. Baina bat-batean egoera erabat aldatuko zen. XIV. mendearen hasierarekin batera, hamar urteko epean batez besteko tenperaturak lau gradu egin zituen behera. Hozterik larriena Europako iparraldean eta

ekialdean izan zuten. Glaziarrek hazi egin ziren eta, garaiko gizakien kalterako, muturreko fenomeno meteorologikoak ugaltu egin ziren. Erdi Aroko Beroaldian hazi egin zen nekazari kopurua, baina egoera berrian tripa nola bete ez zutela geratu ziren. Izotz Aro Txikiko seigarren urterako 1,5 milioi pertsona hil zituzten goseak eta gaixotasunek. Janaria lapurtzea, edo lapurtzen saiatzea, ohikoa bihurtu zen. Bost mendez luzatuko ziren Izotz Aro Txikiaren efektuak. Zergatik hasi zen Izotz Aro Txikia? Zerk eragin zuen? Arrazoi ugari aipatu dituzte ikerlariak: Eguzkiaren erradiazioak behera egin izana, sumendiak... Baina gaiari 2016. urtetik erreparatuz gero, askoz ere interesgarriagoa izan daiteke Golkoko itsaslasterraren inguruko hipotesia, gaur egun tankerako baldintzak baititugu (poloetako izotza urtzen ari da, Erdi Aroko Beroaldiaren azken hamarkadetan bezala), eta orduan gertatu zena berriz gertatzeko aukerak

daudelako. Golkoko itsaslasterra Mexikoko golkotik Ozeano Atlantikoaren iparraldera doan itsaslaster beroa da. 100 m-ko sakonera eta 1.000 km-ko zabalera du, 1,8 m/s-ko abiadura darama eta bere emaria 80 milioi m³/s-koa da, Wikipediaren arabera. Dimentsio horiekin energia eroale garrantzitsua bilakatzen da Europarentzat: itsaslasterraren zirkulazioak Europari dagoen latituderako klima beroa ziurtatzen dio. Eta itsaslasterrak ibilbidea aldatuko balu? Nahiz eta frogatu gabeko teoria izan, zientzialari askok diote, berotze globalak poloetako izotza urtzean, ozeanoetako gatz kontzentrazioa txikitu egingo dela. Ondorioz, itsaslasterrak egun mantentzen duen oreka hautsi egin daiteke, bere ibilbidea aldatuz. Honela, Europako klima leuntzen duen korrontea moztuko litzateke. Ondorioz, ozeanoak haize hotza bidaliko luke Europako mendebaldera, ez epela, eta kontinente osoan Siberiako tenperaturak izango genituzke.



XXI. MENDEKO TXINA

Milioi bat laguni iruzur egin die Ezubao konpainia «mirarigileak»

 **EKONOMIA** / Bill SAVADOVE (Afp)

Diruzalekeriak eta gero eta herritar gehiagok poltsikoan aurrezki batzuk edukitzeak ahalbidetu dute Ezubao konpainiak egindako 7.000 milioi euroko iruzurra. Telebista publikoak ere bere garaian goraipatutako enpresak txinatar askori egin die iruzur. Pekinek horrelakorik ez errepikatzeko neurriak hartzeko eskatu die udal agintarie.

Ezubao konpainiak sekulako irabaziak agintzen zizkien herritarrei telebistaren bitartez. Bermatuta omen zegoen jarritako diruaren %14,6ko etekina. Lehenago munduko beste leku askotan gertatu izan zen moduan (baita Euskal Herrian bertan ere), Txinan ere diru pixka bat aurreztuta zuten herritar askok poltsikoa loditzeko aukera garbia ikusi zuten eta zeukaten altxor hori inbertsio bihurtu zuten, beste batzuk iruzur egiten zebiltzala konturatu gabe. 7.000 milioi euroko iruzurra, eta milioi bat aurreztaile inguru kaltetuta. Bakoitzari 7.000 euro kendu izan baliote bezala.

SEKULAKO ERRENTAGARRITASUNA

Wang Dehong etxeko andreak ere ikusi zuen telebistako iragarkia. Ez zuen zalantzarik egin. Aurreztuta zituen 180.000 yuana (24.500 euro inguru) hartu eta Ezubeo konpainiaren produktu finantzarioan sartu zituen emakumeak. Pentsa, konpainiaren izenak berak “altxor erraza mailegu bitartez” esan nahi du txineraz. Dirua mailegu bidez lortzeko egungo Txinan dauden ehunka lekuetako bat baino ez da Ezubao.

Sekulako negozioa egiten ari zelakoan, Wang lasai bizi zen. Tarteka bere smartphonean jasotzen zituen konpainiakoen mezu lasaigarriak.

Ezubaok kredituaren berri ematen zion, urtean %12,8ko irabaziak bermatuta zeudela esanez. Banku tradizional batek ez du horrelako etekinik eskaintzen, ez Txinan ez beste inon.

Iazko abenduan erabat aldatu zitzaizkion kontuak. Ezubao konpainiak porrot egin zuen, 900.000 inbertitzaile ingururi aurrezkiak garbituta, Poliziak eskainitako datuen arabera.

CCTV telebista kate publikoak otsaileko lehen astean erakutsi zituen Ezubao konpainiako zu-

Ezubao konpainia sortu zuen elkarteko presidentea –Ding Ning– 34 urteko gizona da, finantzen arloan prestakuntzarik ez zuen arren, arrakastazko enpresari moduan ageri zena. Diamante arrosa bat eramaten zuen soinean bezeroei zirrara eragiteko. Irudian, poliziaren galderei erantzuten.

AFP

zendaritzako 21 kideren aurpegiak. Erabat damututa zeudela zirudien. Kateak eman zuen bertsioaren arabera, pertsona horietako bik onartu zuten iruzur egiteko operazioa antolatu izana, telebista publikoak eskaintako elkarrizketetan. Kate berak Ezubaoren jarduera goraipatu zuen hilabete batzuk lehenago.

PONZIREN ESKEMA

Ponziren eskeman edo piramidean oinarritutako iruzur operazioa antolatu zuten aipatu atxilotuek: bezero berrien dirua erabiltzen zuten, zaharrenei ordaintzeko. Bezeroei esaten zieten dirua makina bat proiektu aurrera ateratzeko erabiltzen ari zirela. «Nik dakidanez, aurkeztu zizkiguten inbertsio proiektuen %95 faltsuak ziren», adierazi zion Yong Lei konpainiak Anhui probintzian zuen egoitzako zuzendariak Xinhua berri agentziari.

Xinhuak azaldutakoaren arabera, bezeroek ustez inbertsioak egiteko emandako dirua zuzenean jabeen kontuetara joaten zen, beraien buruetatik pasatzen ziren kapritxo guztiak egiteko. Aldi berean, konpainiak jasotzen zuen kopurua hasiera batean proiektu horretan dirua





sartu zutenei zorrak ordaintzeko ere erabiltzen zuten.

Ezubao kasuak agerian utzi du Txinako araudiaren arduragabekeria, laxotasuna, alde batetik. Gainera, garbi geratu da herrialdeko inbertitzaile txiki horiek itsu-itsuan onartzen dituztela mirariak aginduz eskainitako produktu finantzarioak, hasiera batean oso erakargarriak diruditenak. Txinako burtsen ezegonkortasunak begiraleak kezkatuta zituen momentu batean, Ezubao %9ko irabaziaz agintzen ziotuen kasurik txarreanean, eta %14,6koak onenean. Ohiko banku batek nekez emango ditu %1,5eko irabaziaz baino gehiago.

JATETXERIK GARESTIENAK

Gainera, iruzurra hobeto egin ahal izateko, mirariak oparitzen zituzten saltzaileek aurreztailea hunkitzeko moduko janzkera eta apaingarriak erakusten zituzten, jatetxerik garestienetara joateaz gain. Louis Vuitton, Gucci, Chanel eta Hermez luxuzko markako arropak jantzita agertzen ziren bileretara. «Guztiak oso sinesgarria zirudien lehenago ikusita nituen inbertsio proposamenekin alderatuta», adierazi zion AFP agentziari Wang

Ezubao konpainiaren iruzurraren hainbat biktima, hilaren 4an Pekinen egindako mobilizazioan.
Greg BAKER | AFP

Dehongek. Gaur egun, 5 urteko seme baten ama den Dehongek, ganbak saltzen ditu Internet birtualizazioaren biktima izan dela ahaztu eta bizirik jarraitu behar duelako.

Ezubao konpainia sortu zuen elkarteko presidentea Ding Ning 34 urteko gizona zen, finantzen arloan prestakuntzarik ez zuen arren, arrakastazko enpresari moduan ageri zena. Diamante arrosa bat eramaten zuen soinean bezeroei zirrara eragiteko. Gainera, Singapurren luxuzko etxe bat zuen. «Txinako Madoff» deitu zaio hedabideetan. Biktimei ahal zuen diru guztia ateratzen saiatzen zen, Zhang Min amoranteari sekulako opariak egiteko. Min berak ere iruzurgile trebea dela erakutsi du.

Ezubao konpainiak beren negozioa hankaz gora zihoala ikusi zutenean, beldurtu egin ziren, jakina. Zuzendaritzakoek lurpean, sei metroko sakoneran, gorde zituzten dokumenturik konprometigarrienak. Paper asko, ustez ondo ezkatatuta. Baina polizia berreskuratu egin zituen dokumentuok, bi hondeamakinaren laguntzarekin. Hogei ordu egin zituzten lanean pape-rak lurpetik ateratzeko.

Biktimak, berriz, protesta egitera kalera irten dira azken egunotan. Pekin hiriburuan dozenaka lagun elkartu ziren, esaterako. Agintariei exijitu zieten galdutako diruarengatik konpentsazioen bat emateko.

Oraingoz ez dute horrelakorik jasoko. «Txinako Madoffen» jardueren berri izan zutenean, agintariek adierazi zuten sektorea arautzen duten legeak gogortzeko proiektu bat mahaia- ren gainean dutela. Izan ere, Ezubao inolako arazorik gabe egin zuen bere produktuaren propaganda bazter guztietan, telebista publikoan zein abiaduraren handiko trenetan ipintzen dituzten txarteletan adibidez.

BIKTIMAK, ETSITA

Neurri horiek ez dute iruzurra- ren biktimen samina samurtzen. Etsita daude. «Gobernuak ez digu informazio berririk eman eta galduta sentitzen gara», esan zion kazetariei Xing Ke Guangzhou hiriko inbertitzaileak. Berak 600.000 yuan (81.000 euro inguru) galdu ditu, aberastu nahian. «Zulo beltz batean sartzea bezalakoa da gure egoera, eta okerrean da ez dela inor zuri laguntzera etortzen».

BERNIE MADOFF BEZALA, BAINA BIZKORRAGO

Bernard Leon Madoff 1938ko apirilaren 29an jaio zen. Madoff Investment Securities enpresako zuzendari eta Wall Streeteko broker ezaguna zen. Madoff Investment Securities inbertsio enpresa 1960ko hamarkadan sortu zuen.

2008 abenduaren 12an, AEBetako FBI polizia federalak atxilotu egin zuen, ustez bere inbertsio enpresaren bidez 50.000 milioi dolarreko iruzurra egiteagatik. Antza, Madoff enpresak interes-tasa handiak eskaintzen zizkien, Txinan Ding Ningek egiten zuen moduan, AEBetako eta Europako bankuen bidez inbertsio fondoetako parte hartzaileei. Iruzurra, piramidearen eskema jarraituta egin zen.

«Madoff Iruzurra» inoiz AEBetan pertsona bakarrak eginiko iruzurrik handiena da. 2009ko ekainaren 29an New Yorkeko Auzitegi Federalak 150 urteko kartzela-zigorra ezarri zion «historiako finantza iruzurrik handiena egiteagatik».

Ding Ningek ez du horrenbeste diru lapurtu, baina begiraleek nabarmentzen dute hemezortzi hilabete baino ez dituela behar izan bere iruzur sarea eratu eta dirua lapurtzeko.

Madoff maisuak zera esan zion «The New York Magazine» aldizkariari 2010ean, bere barru-barruko pentsaera agerian uzteko: «Ez naiz damutzen, ez dut sentitzen eragindako kaltea. Biktimek izorratzea dute! Nire bezeroak diruzaleak eta ergelak ziren». Orduan esan zuen kartzela berarentzako «askapena» zela, baina geroztik bertatik irteteko maniobra asko egin ditu.



Unai Fernandez de Betoño - @UnaiFdB
Arkitektoa

Golfaren turismoa

Espainiako FITUR 2016 turismo-azoka burutu da iragan urtarrean. Nafarroa Garaiko eta EAeko standetan Hego Euskal Herrirako turistak erakartzen saiatu dira, kultura aitzakia hartuta. Edo, hobe esanda, kulturaren ikuspegi jakin bat, zeinetan eduki politiko gatazkatsuak nahi-ta baztertu diren, salerosketa turistikoek kalterik ez eragiteko. Nola “saldu” daiteke bestela Nafarroako Gazteluen Ibilbidea, seriotasun minimo batekin, 1512ko data aipatzera-koan “konkista” edo “inbasio” hitzak saihestuz, eta gertaera horren eragilea isilduz? Nola “saldu” daiteke bestela euskal mitologia EAEn lurralde-ikuspegi partzialetik, euskarak mundu-ikuskerak horretan zuen garrantzia alboratuz?


Antzematen da tokiko ukitu bat eman nahi zaiola turismo-eskaintzari, globalizazio homogeneizatzalearen aurrean nolabait bereizteko. Ukitu hori gehiegi eztitu nahi da, ordea, emaitza urardotu eta hutsala lortuz. Batean bale, besteetan kale. Zertara dator, bestela, EAeko naturaren ederra gorai-patzea, eta, ondoren, golf turismoa sustatu nahi dela iragar-tzea? Akaso Basquetour turismoaren euskal agentziari bost axola zaio golfaren inguruko espekulazio urbanistiko guz-tia? Ez al da konturatzen Eusko Jaurlaritzak golfaren turismo-aren apologia instituzionala egitea golf urbanizazio berriei atea irekitzea dela? Ados al dago Ingurumen Saila golfaren gorazarre horrekin? Erantzunak ez jakitea nahiago.

Arduragabekeria baita golfaren turismoa indartu nahi iza-tea, hirigintza-espekulazioaren alde iluna alde batera

utzita. Azken urteotako golf proiektu anitzetan ikusi dugu-na, EAetik irten gabe (Lapurdiko kasuak bakarrik aparteko li-buru baterako ematen du), green-en inguruan luxuzko urba-nizazioak egin nahi izan baitira, ia sistematikoki: Bastidako Golf & Wine proiektuan 750 etxe egin nahi izan zituzten, Ba-kioko Oiagan 250 etxe, Guardian 500 (tartean eroskeria-kasu polemiko batekin, jada epaitutakoa eta zigortutakoa), Ordi-ziako Oiangun hotel bat...

Arabako Errioxako proiektu horietan, gainera, ur-hornidu-raren inguruko arazo urbanistiko-ekologikoak ere oso kezka-garriak dira. Nafarroako hegoaldean oraingoz gaizki aterata-ko beste zenbait proiektutan bezalaxe: Vianako golf urbanizazioa (1.500 etxe), Tuterakoa (750 etxe), Mendabia, Larraga... Soropila berde-berde mantentzeko pestizidek lu-rrazpiko akuiferoetan eragin ditzaketan kalteak aipatu gabe. Baztango Aroztegia proiektuari ere akuifero batetik eman nahi ei zaio edateko eta ureztatzeko ur-hornidura.

Arazo espekulatiboei eta ekologikoei arazo ekonomikoak ere gehitu behar zaizkie. Golf zelaiek galerak dituztene-an herritarren artean banatzen baitira. Galde diezaietela bestela, porrot egindako Artxanda golf klubeko 1.000 akzio-dunei. Edo, nabarmen larriagoa dena, Izikiko eta Lagrango ze-laiak kudeatzen dituen Naturgolf enpresa publiko defizita-rioaren jabe diren arabar guztioi: soilik PPren aurreko legegintzaldian Javier de Andres orduko ahal-dun nagusiak diru-zorro publikotik 1.634.000 euro bideratu zizkion. Mito-logikoa. •



Ilustrazioa: UNAI FERNANDEZ DE BETOÑO

{ asteari zeharka begira } **Iñaki Altuna**

Ez da gotorturik geratzeko garaia

Ezker abertzalearen Abian eztabaida burutzeko txostena zabaltu dute aste honetan. Sarean dago, edonork eskuratzeko. Hamaika lerroburu, ardatz, ideia nagusi eta beste aipa daitezke txostena, gainera bada ere, irakurri ostean. Adibidez, Sortuk uda aurretik ezohiko kongresua egitea erabaki duela azaltzen da idazkiaren sarrean bertan. Prozesu honek merezi duen urratsa egingo duela esan daiteke, berez kongresuak 2017ko hasieran izan behar bailuke. Alabaina, urratsak ez ezik, ibilbide osoa ere egin beharko dute bai Sortuk berak bai ezker abertzale osoak eztabaida prozesu honetan jarritako helburuak bete nahi badira; are gehiago, testuan “birfundazio” hitza ere erabiltzen denean. Horregatik, txostenean hamaika kontu aipagarri izan arren, ondorio orokor bat nabarmen daiteke argi eta garbi: ez da gotorturik geratzeko unea. Ez da gotortuen garaia.

“Zutik Euskal Herria” ebazpenean papereratutako estrategia aldaketaren ondotik ibilitako bidearen balantzea egin du txostenak, modu autokritikoan; estrategia hori gaurkotu beharra azpimarratu du eta, azkenik, horrek denak antolakuntza ereduan, ibilmodean eta kultura politikoan ondorioak izan behar dituela ebatzi du. Ez gotortzea izango dute hiru kontu horietan –autokritika egiterakoan, estrategia gaurkotzerakoan eta ibilmodea zehazterakoan– ariketa azken bururaino eramateko modurik egokiena eta eraginkorrena.

Eta hori ez da erraza izaten, guztion joera baita atzera begira norberak izandako posizioa justifikatu nahi izatea. Horrela, autokritika egin behar dela ozen esan bai, baina, norberak egin ordez, besteena eskatu izan ohi da: orduan bai, ahal den gordinena eta ñabardurarik gabekoa. Gurea egiteko orduan, aldiz, beti aurkitzen ditugu kanpo faktoreak, testuinguruak edo dena delakoak gure ardura gutxitzeko edo leuntzeko.

Oraindik sektore batzuetan “Zutik Euskal Herria” nola egin zen auzitan jarri ohi da, eta estrategia aldaketa ez zela behar adina egoki eta ordenatua izan iradokitzen dute. Estrategia aldaketa oztopatzen aritu izana onartzea eta, hori eginda, indarrez aurrera egitea baino errazagoa da, nonbait, nork bere burua zurrizteko ahaleginean eten-

gabe jardutea, ez aurrera ez atzera. Jokabide horrek ez luke aparteko garrantzirik izango bazka emango ez balie oraindik ere estrategia berrituari eraso egin nahi dioten sektoreei. Ez luke aparteko ondoriozko estrategiaren potentzialtasun osoa askatzeko indar guztia jartzea oztopatuko ez balu.

Xelebreena, azken batean, honako hauxe da: prozesu hartan sortutako arazoei behar bezala ez erantzuteagatik egondako autokritikarik sendoena ETak bere buruari egindakoa izan zen, borroka armatuan ziharduen erakundea izanik ezker abertzaleak erabakitako sakoneko aldaketak beste inori baino gehiago mugitu zizkionean barrenak. Gaizki eta baldar aritu izana onartzeak ahalbidetu zion erakunde armatuari apustu politikoari sakonki aurre egitea. Bere agirietan azaldu bezala, prozesu honetan ez dago «behartuta», gogo onez baizik, eta horrelaxe jarraitu beharko du, aurrera egiterik nahi badu.

Urratsak ez ezik, ibilbide osoa ere egin beharko dute bai Sortuk berak bai ezker abertzale osoak jarritako helburuak bete nahi badira; are gehiago, txostenean «birfundazio» hitza ere erabiltzen denean

Urte hauetan maiz ahaztu den beste irakasgai bat ere kontuan hartu beharko dute ezker abertzalea osatzen duten militante, antolakunde eta kolektiboek: akatsei ez zaie akats berriekin erantzun behar. Abian prozesuak oinarriak eta irizpideak finkatuko ditu, baina ez du egoera idilikorik ekarriko. Aurrerantzean ere arazoak sortuko dira –dela formetan dela mamian–, baina erantzuna ezin daiteke berriro gotortzea izan, egituratu nahi den prozesu independentistak ezer baino gehiago proposamen berriak behar baititu, erresistentzia hutsetik harago joango direnak. Abian prozesuko txostenaren esanetan, «mugimendu independentista zabal, anitz, sendo eta eraginkor bat sortzea da erronka, hegemonia ideologiko independentista azken bururaino eramateko gai izango den mugimendua, jauziak emateko baldintzak sortuko dituen eta erasoei erantzuteko kapaz izango dena».

EUSKALKIAK.EUS

Ahozkoan bizirik dauden hizkerak bistaratu, bizirik segi dezaten

📁 **EUSKARA** / amagoia.mujika@gaur8.info

Euskalkiak entzun egiten dira, baina ez dira ikusten. Horrekin kezkatuta eta euskalkiek euskararen osasun onean duten eraginaz jabetuta, Euskalkiak.eus webgunea zabaldu dute. Euskara batua beharrezkoa da, baina beharrezkoak dira euskalkiak ere. Eta ez dira inondik inora elkarren kontrako, bizilagun baizik.

Gehiegitan gertatzen da –eta aldiro ematen du min– pentsatu, sentitu, haserretu, poztu, gogoratu, kontatu, barre egin eta kezatu euskaraz egiten dituen adineko pertsona batek euskara bizi-bizian esatea berak ez dakiela ondo euskaraz, bere euskara ez dela ona, ez zuela ikasi eskolan euskaraz *leitzen* eta *eskribitzen*, bere euskara eskasa dela. Bere euskara, baina, bizi-bizia da, benetakoa, hizkera eta hitz jira bikainak dituena, zuzena, gauza txikienak modu zora-

garrian esateko gaitasuna duena, betikoa eta gaurkoa. Bere euskara egunerokoan sortzen zaizkigun egoera guztietan janzteko modukoa da. Eta berdin da euskalki hori bat edo bestea izan, denek dute balio berdina, eta balio handia.

Koldo Zuazo hizkuntzalariak hogeitun urtetik gora daramatza hango eta hemengo euskalkiak ikertzen eta jasotzen eta kasik toki guztietan bizi izan du kontatutako egoera; «adineko pertsona batekin hizketan ari zara, plazer hutsa da hura entzutea, eta grabatzen utziko ote dizun galdetzean –bere euskara jaso-

Beheko irudian, Donibane Garazi. Koldo Zuazo hizkuntzalariak egonaldiak egin izan ditu tokiko euskalkiak ikertu eta jasotzeko. Lehen lana Donibane Garazin egin zuen. Gaizka IROZ

tzeko eta ikertzeko– esaten dizu alabarekin edo bilobarekin hitz egiteko, haiek grabatzeko, berak baino askoz hobeto hitz egiten dutela euskara eskolan jaso dutelako», kontatu du. Galtzen ari garen «sekulako kapitala» ikusten du hor Zuazok. Eta galzorian dagoenaren kontzientzia pizte aldera jarri dute martxan Euskalkiak.eus Interneteko ataria.

HIZKUNTZAREN OSASUNA

Gertatzen ari den beste fenomeno bat ere jaso du Zuazok, «gurasoek seme-alabei hizkuntza transmititu beharrean, askotan seme-alabak dira hizkuntza erakusten dietenak. Eta azkeneko gurasoek aldatu egiten dute; ‘lehen horrela esaten genuen baina orain beste era honetara esaten dugu, seme-alabei horrela entzun diegulako’. Gauzak ez dira horrela, hizkuntza guztietan zaharrek erakusten diete gazteei, eta ez alderantziz».

Eta buelta ematen ari den transmisio bide hori, gainera, euskalkiaren kaltetan da. «Ez da bakarrik euskalkia galtzen, hizkuntzaren osasuna ere galtzen da. Finean hizkuntza ez duzu lau edo bost urterekin ikasten,

hizkuntza bizitza osoan zehar ikasten duzu».


Euskalkien osasunean ikusitako pitzadura horiekin kezkatuta, Euskalkiak.eus webgunea jarri dute martxan, euskalkiek daukaten balioa nabarmentzeko eta euskaldunei abisu emateko oso garrantzitsua dela galtzeko arriskuan dagoena. EHUKo Euskararen Errektoreordetzak babestutako webgunea sortu duen lantaldea Oñeka Alvarez, Xabier Eizagirre, Iñaki Iñarra, June Lauzirika eta Teresa Portugalek osatzen dute, Zuazorekin batera.

Euskalkien sorrera eta bilakera osatua jasotzen du webguneak, historian barna izan diren eztabaidak, hartu diren erabakiak eta horiek ekarri dituzten ondorioak. Gainera, egun gazteak direnen ahotik jasotzen ditu zenbait euskalki, aurpegi ezagunak asko. Bideoz agertzen diren elkarrizketek garbi erakusten dute euskarak bere baitan daukan aberastasuna eta nola iritsi den aniztasun hori bizirik egunotara –gazte horiek euskara bizi-bizia darabilte, bakoitzak bere euskalkian–. Horien hizkerak entzunda garbi hartzen da euskalkiak galtzen uzteak ekarriko lukeen galeraren kontzientzia.

Webguneak jasotzen duenez, 1964. urtean eman ziren euskara batuaren aldeko lehen pausoak, «berandu, beraz». Hori ulertzeko zenbait arrazoi jartzen ditu mahaiaren gainean. «Alde batetik, euskarak ez du joan den mendeetan ofizialtasunik eduki; ez da eskolan eta administrazioan ia sekula erabili. Idatzizko zereginetan ere gutxi baliatu da. Gaskoiak eta frantsesak bete dute zeregin hori Ipar Euskal Herrian; gaztelaniak, Hego Euskal Herrian. Azken batean, euskara inguru jakin batzuetako ahozko jardunetara mugatu da eta, horretarako, nahikoa zen lekuan lekuko euskalkia».

Arrazoi nagusi horiez gain, beste bi gertakari ere azaltzen ditu atariak: Aita Manuel Larra-mendiren eta Arana Goiriren mezuak.

«Larramendik (1690-1766) euskalki guztiak zirela onak eta guztiak erabili beharrekoak esan zuen bere hiztegiaren



(1745) hitzaurrean. Egiari zor, ez-tabaidaren beroak ekarri zuen hori esatea. Haren garaikide zenbaiten iritzian, euskara hizkuntza basatia zen, arautu gabea eta arautu ezina eta, hori dela eta, hainbat euskalkitan zatituta eta guztiz desitxuratuta zegoen. Larramendik, horri aurre egiteko, euskara eta bere euskalkiak Jainkoak sortu zituela Babelen esan zuen eta, horrenbestean, onak eta zuzenak zirela. Ikuspegi horretatik etorri zen euskalki guztiak indartzea, eta, ondorioz, literatura euskalkiak garatzea».

Bigarrenik, «Sabino Arana Goirik (1865-1903), Euzko Alderdi Jeltzalea sortu zuenean, egitura federala aldarrikatu zuen Euskal Herri beregainaren barruan eta, horrenbestean, herrialde bakoitzean bertako euskalkia landu behar zela esan zuen. 'Lecciones de ortografía del euskera bizkaino' saioan idatzi zuenez, sei euskalki behar ziren; inondik inora ere ez euskara batu bakar bat».

Arazoi eta iritzi desberdinak tarteko, euskara batuak berandu abiatu zuen bere bidea. Eta bidea egin duela urte batzuk joan direnean, zenbait ondorio nabarmendu dituzte aipatu webgunean. Batetik, euskara batuak jendarteari ekarritako onurak nabarmentzen dira: «Euskaldun guztiok bata bestearekin euskaraz jarduteko aukera daukagu; ez dugu erdaretara jo beharrik dagoeneko. Euskarari normalizatzeko bideak ireki zaizkio: irakaskuntzan, administrazioan, hedabideetan eta idatzizko zereginetan balia daiteke. Erdaldunek euskara ikasteko aukera sortu da; 'euskaldun berri' ugari agertu dira 1964tik hona. Administrazioak ezarritako mugak gainditu eta Iparralde eta Hegoalde gerturatu dira. Euskarak ospea irabazi du. Dagoeneko ez da euskalki sorta bat; benetako 'hizkuntza' da».

ZABALTZEKO MODUAN AKATSAK

Baina euskara batua zabaltzeko moduan akatsak ere ikusten dira, eta horietako hiru nabarmentzen dituzte webgunean: «Ez dira herri erdaldunak eta

«Adineko pertsona batekin hizketan ari zara eta grabatzen utziko ote dizun galdetzean esaten dizu alabarekin edo bilobarekin hitz egiteko, berak baino hobeto hitz egiten dutela»

«Zeregin jasoetarako baizik ez da egokitu euskara batua: testu liburueta-rako, literaturarako... 'Lagunarteko estandarra' edo 'estandar kolokiala' lantzea komeni da»

euskaldunak bereizi. Euskara batua modu berean zabaltzeko erabili da Tuteran eta Lekeition, Santurtzin eta Gasteizen. Leku euskaldunetan ez dira bertako euskalkiak aintzakotzat hartu».

Bigarrena, «euskara batua euskara 'on' eta 'jaso' modura aurkeztu da eta, beraz, batua ez zirenak 'txar' eta 'basati' modura agertu dira. Hori dela eta, euskalkiak atera dira galtzaile. Etorkizunari begira, batua eta euskalkiak hizkuntzaren osagaitzat aurkeztea komeni da; batari eta besteei dagozkien esparruak egoki zehaztea».

Eta, hirugarrena, «zeregin jasoetarako baizik ez da egokitu euskara batua: testu liburueta-rako, literaturarako... Euskalkirik ez dagoen eremu erdaldunetan ez dago lagunarteko erregistrorik. Ezta euskaldun guztiei begira egiten diren jardun informaletan ere. 'Lagunarteko estandarra' edo 'estandar kolokiala' lantzea komeni da».

AHOZKOTIK GEHIAGO EDATEA

Zenbait esparrutan igarri da al daketa. Telebistan eta zinemagintzan esaterako, garai bateko euskara batu jaso eta ikus-entzule askorentzat urruna euskalkietatik gertuago eta sinisgarriago aurkeztzen ari da azken urteotan. «Garai batetik hona asko ari gara hobetzen, baina komeni zaigu noizean behin egur pixka bat ematea jendeak erabil dezan. Itzulpengintzan edo irakaskuntzan ari den jendeak, adibidez. Ez dut esaten erabiltzen den euskara txarra denik, baina bizirik dagoen hori ezagutzea eta baliatzea garrantzitsua da, eta ahozkotik gehiago edatea».



Garrantzitsua da euskalkia konplexurik gabe transmititzea. G. GARAIALDE | A. PRESS

«BENETAKO EUSKALKIA JASOTZEKO ASTEBURU-PASA JOATEA EZ DA NAHIKOA»

Euskara eta nagusiki euskalkiak ditu ikergai Koldo Zuazok, mimoz eta pasioz egiten duen lana. Bere lanerako modua berezia da, denboraldi luzeak ematen baititu euskalkia bizirik dagoen tokian bertan, hizkera horren ezaugarriak jaso nahian. «Hasiera batean asteburu-pasa joaten nintzen herrietara, bertako euskalkia jaso nahian. Baina horrek ez du funtzionatzen, jendeak ez baitzuz bere euskalkian egiten bete-betean, zuk egiten duzun horretara hurbiltzen saiatzen da. Aldiz, leku batean hilabete bat edo bi ematen dituzunean, bertakotu egiten zara eta benetako euskalkia jasotzeko aukera gehiago duzu. Jendearen eguneroko bizimoduan sartzen zara eta orduan lortzen duzu euskalkia benetan ezagutzea», kontatu du.

Lehen egonaldia Donibane Garazin egin zuen, 2006. urtean. Ondoren, 2007 eta 2009 bitartean Urdiainen bueltan aritu zen lanean. 2010-2012 tartean, berriz, Araitz-Beteluko euskalkia izan zuen aztergai eta 2013. urteaz

geroztik Saran dago. «Ez naiz denbora guztian bertan egoten, baina udazken partean denboraldi luzeak egiten ditut toki horietan, hilabete pare batekoak». Esa bezala, orain Saran ari da lanean, eta bertan bost urteko egonaldia egitea aurreikusten du. «Konturatu nintzen Ipar Euskal Herrian ez zegoela horrelako hiztegiak eta egin beharra zegoela pentsatu nuen. Saran hiztegi bat osatzen ari naiz, 2.400 sarreratik gora izango dituen. Oraindik lan handia daukat egiteko», agertu du hizkuntzalariak.

Egonaldiak egin dituen tokietan harrera beroa egiten diote. «Oso ondo hartzen naute. Nik beti esaten diet ikaslea naizela eta beren euskalkiaren berri ikastera natorrela. Jendeak oso ondo hartzen zaitu bere euskalkiaren gaineko interesa agertzen duzulako. Garrantzitsua da apala izatea, horregatik esaten dut beti ikastera etorri naizela. Oso esperientzia onak izan ditut eta lagun handiak egin ditut bidean».

KOLDO ZUAZO

HIZKUNTZALARIA ETA EUSKALTZAIN URGAZLEA

«Euskararen meritua euskalkiek XXI. mendera arte bizirik irautea da, eta, aurrera egiteko, bizirik dagoen horri eutsi behar diogu»



Juan Carlos RUIZ | ARGAZKI PRESS

Koldo Zuazo hizkuntzalaria eta euskaltzain urgazlea da eta urte luzeak daramatza euskara ikertzen eta, bereziki, euskalkiak ikertzen. Joan den astean aurkeztu zuen Euskalkiak.eus ataria, kezkatuta ikusten duelako nola ari diren euskalkiak galtzen.

Zergatik sortu duzue Euskalkiak.eus ataria?

Azken urteotan ahalegin handia egin da euskara idatzian, euskara kultura hizkuntza egiteko ahaleaginean, baina, aldiz, ahozko hizkera baztertuta utzi dugu. Garrantzitsua da Durangoko Azokan ez dakit zenbat titulu berri ateratzea eta ez dakit zenbat tesi egitea euskararen inguruan, baina zer lortzen

dugu gero hiztunaren jarduna, lagun artekoa, erdarazkoa baldin bada? Euskalkia da webguneko izarra, baina bestelako kontuak ere hartzen ditu kontuan; ahozkotasuna, orokorrean.

Euskarak ez omen du biziraungo euskalkirik gabe.

Edozein hizkuntza bizirik dagoen bitartean dialektoak sortzen dira. Dialektoak dira bizitasunaren seinale, gure eguneroko bizitzan erabiltzen ditugun hizkerak. Ematen du hemen euskara batua atera nahi izan dugula aurrera, gainera, euskara batu jaso bat; ez hori bakarrik, beste adierazpen moldeak baztertuta utzi ditugula dirudi. Horren ondorioa izaten da hiztunak

maiz euskaratik ihes egiten duela bere maitasuna edo haserrea adierazi nahi duenean, esaterako. Guk euskaraz bizi ahal izateko aukerak eman nahi dizkiogu jendeari, gauza guztietarako euskara izan dezan.

Euskara batua haurrei goizegi eta azkarregi sartzen ote zaien kezka agertu duzu.

Baietz uste dut. Argi daukat eskoletan euskara batua erakutsi behar dela, azken batean euskara batua da euskaldun guztiok erraz komunikatzeko daukagun tresna eta jakin egin behar da. Baina ikusten dut euskara batua goizegi sartzen dela, haurrak hiru edo lau urte dituenetarako, eta ikasketa hori

samurrago eta normalago egin behar dela uste dut. Esaterako, haurra irakurtzen eta idazten hasten denean has daitezke euskara batua ikusten, edo telebistaren bitartez, udalekuetan... Betiere saihetsi behar duguna da umeak beren euskararekin konplexua izatea, beren euskalkia euskara batua baino okerragoa dela pentsatzea. Beraiena ondo ikus dezatela, eta baita besteena ere. Euskararen aniztasuna ikus dezatela.

Non eta nola erabili euskalkia?

Herri euskaldunetan, lagun arteko jardunetan... Faltan ikusten dudan beste gauza bat da euskalkiak entzun egiten ditugula baina ez ditugula ikusten. Hizkuntzak ikusi egin behar dira. Ez dut esaten edozein gauza euskalkian idatzi behar dugunik, baina herri euskaldunetan jubilatuentzako ibilaldi bat antolatzen denean, edo gazteentzako mus txapelketa bat antolatzen denean, edo futbol txapelketa bat... horrelako oharrek bertako euskalkian egin beharko genituzke. Beste gauza bat da, esaterako, Bilboko metroko sarreran jarri beharreko oharra; argi dago hori euskara batuan jarri behar dela mundu guztiko euskaldunek irakurtzeko modukoa izan behar duelako.

Teknologia berriei begira; Whatsapp aplikazioa bera, esaterako, euskalkiarentzat toki ona izan daiteke, ezta?

Zalantzarik gabe. Lagun arteko mezuak dira eta ez dituzu euskara batuan idatziko, ezta? Gainera, ahozkotik gertuago daude idatzizkotik baino.

Erakundeetatik zer egiten da euskalkien alde?

Nik uste inork ez duela egiten euskalkien alde. Beti esaten dugu euskararen meritua dela bizirik irautea XXI. mendera arte, baina euskalkiak dira bizirik iraun dutenak, eta, hizkuntza hau aurrera atera nahi badugu, bizirik dagoen horretan oinarritu beharko dugu. Askotan indarra jartzen dugu XVI. mendeko idazleek idatzi zutena ikasi nahian eta ez dugu aintzat hartzen egun egiten dena. Sarri hitz berriak asmatzen ditugu eta ez gara ohartzen hitzak baditugula. Hitz horien bila joan behar dugu eta hor daude, hiztunen ahotan.

Zuk esana da hitz berri horietako batzuek euskara martziano bihurtzen dutela, beste planeta batekoa.

Batzuek bai. Niretzako adibide garbia da, esaterako, “ahalbidetu” hitza. Gaur egun

barra-barra entzuten da. Duela urte batzuk “ekarri du” edo “etorri da” esango genuke. Esaterako, horrela esango genuke: “Masen dimisioak ekarri du gobernu berria osatzea” edo “Masen dimisioarekin etorri da gobernu berria”. Eta gaur egun barra-barra entzuten da, “Masen dimisioak ahalbidetu du gobernu berria osatzea”. “Ekarri” eta “etorri” euskaldun denok ulertzeko modukoak ziren eta bat-batean etorri da “ahalbidetu”, nahasgarriagoa dena. Eta horrek dakarrena da jendeari konplexua sortzea. Hitza entzun eta “zer da hori? Nik ez dakit euskaraz”, pentsatzea. Euskaldun denok ezagutzen eta erabiltzen ditugun hitzak ez erabiltzea akats bat dela iruditzen zait.

Akaso kostatu egiten da ahozkotik ekarritako hitzak eta joskerak modu formalagoan erabiltzea?
Batzuetan ez dugu euskalkia erabiltzen konplexuengatik, iruditzen zaigulako ahozko hori ez dela duina. Zergatik ez da izango duina? Beti jartzen dudana adibidea “uste” hitzarena da. “Uste” hori euskaldun denok erabiltzen dugu, Bizkaitik Zuberoara. “Iritzi” ere euskaldun askok erabiltzen dugu, ez denok, baina askok. Eta aldiz, “aburu”, ez

du ia inork erabiltzen. Eta askotan, tertuliatan eta dabiltzanek, “ene aburuz” erabiltzen dute jasoagoa delakoan edo.

Euskara zapatak bezalakoa dela diozu, egoera bakoitzerako zapata mota bat eta euskara mota bat.
Gero eta zapata mota gehiago izan, hobe. Horrela edonora joan ahal izango gara; hondartzara, mendira, paseatzera... Eta galdetzen dutenean, zein da zapata klaserik onena? Ba ez dago bat bakarra, egoeraren arabera da. Haserre zaudenean hitz zatarrak eta larriak behar dituzu, eta, maitasuna adierazteko, hitz samurrak. Egoeraren arabera euskara bat edo bestea beharko duzu, ezta?

Euskara batuak, batua izanagatik, ez du berdina izan behar toki batean eta bestean, ezta?
Euskara batu bat izan behar dugu euskal telebistako albistegietarako, euskaldun denok entzuten ditugulako, edo zientzia liburuetarako, adibidez. Horietan beharrezkoa da estandar bat. Baina badira bestelako egoerak hizkuntza nazionalaren eta hizkuntza lokalaren artean aukeratzeko modua ematen dutenak. Eta hizkuntza lokala esaten dudanean ez naiz euskalkiaz ari, euskara

batuaz ari naiz, baina tokian tokiko hitzak eta egiturak txertatuta, tokian tokiko euskara batua. Eta euskara batuak ematen ditu aukera horiek. Euskaltzaindiak berak esaten du euskal hitz guztiak euskara batua direla, eta baita egitura sintaktikoak ere.

Bost euskalki bereizi dituzue webgunean. Bonapartek zortzi bereizi zituen 1863-1969 bitartean. Euskalkiak murrizten eta berdintzen ari al dira?
Bai. Hitz berri asko komunak dira eta hori ona da, esan nahi baitu herria kohesionatzen ari dela eta hizkuntza ere kohesionatzen ari dela. Orain arte euskalki mordoa izan dugu, euskara baztertua egon delako administrazioan, hezkuntzan eta toki guztietan. Gaur egun, egoera aldatu egin denez gero, hizkuntza bera aldatzen joan da eta hori berez baikorra da. Kontua da bateratze hori askotan ez dela naturala izan, gauzak lasterregi egin ditugulako eta ez dugulako ondo ulertu euskara batua zer den. Pentsatu izan dugu hitz batzuk ez direla batua eta baztertu egin ditugu. Esaterako, bizkaitarrek pentsatu dute beren “jausi” ez dela batua eta “erori” erabili behar dela, eta hori ez da inolaz ere horrela.

Ez dugu ondo ulertu zer den euskara batua?
Badira bateratu diren gauza batzuk, aditzak edo deklinabideak, adibidez. Baina beste gauza asko libre utzi dira. Adibide bat jartzearen Bizkaian erabiltzen diren izenordain zenbait; “edonon”, “edonora”, “edonoiz”, “edonora”, “edonoren”... eta irakasleek-eta pentsatu izan dute hori ez dela euskara batua eta nornahi, noiznahi, nonahi eta horiek erabili behar direla. Eta zer den kontua, 60 urtetik gorako lagun batekin hizketan egon eta “edonon”, “edonoiz” horiek barra-barra erabiltzen dituela eta gazteen artean, berriz, ez dituzte horiek erabiltzen. Irakaskuntzan galdu egin dira forma horiek, inolako beharrik gabe.

Eta euskaldun berriak? Euskalkirik ez dutenak?
Euskaldun berriek badute euskalkia, hautsi beharreko mitoa da euskaldun berriek euskalkirik ez dutela esaten duena. Esan izan da euskara batua artifiziala dela, laborategikoa, eta ez da egia. Euskara batua erdialdeko euskalkian oinarrituta dago eta, beraz, euskara batua ikasi dutenak badute euskalkia, Gipuzkoakoa.

Mozorroak

Xabier Mikel Errekondo

Mozorroek inauterietan bazter guztiak dituzte blaitzen. Zapore gazi-gozoak, kalte eta min ororen ahanzturarako bidaia terapeutikoa bailitzan, zuri-beltzeko errealtatea mila kolorez margotzeko ari-keta-dantza. Kezka eta tristura egun batzuez irri bihurtzeko formula magikoa, zalaparta eta giro aparta. Nonahi. Alajaina, ez zaio ezer eskapatzen jendeari. Iru-dika ditzakegun eszenografia baita koreografia orok dute osatzen kaleetako suge koloredun zaratatsua. Esango nuke imajinaziotik baino errealtatearen orbainetatik garela mozorrotzen inauterietan.
Eta jendea zerura begira bizi dela pentsatzen duenik bada oraindik... batez ere, politikagintzan ardurak hartzen dituzte-

nen espezie arraro bezain ugariaren artean. Begitantzen zait ikusten eta entzuten ikasteak ez lukeela ba hain garestia izan behar. Aitzitik, agian espezie horretako kide izateko ezinbestekoa baldintza da. Joango dira inauteriak, baina erruz ugari-tzen den mozorro mota jakin batek jarraitu egingo du eguneroko ehiza-erri-tualarekin, traje eta soineko beltz apainetan bildutako politikariak. Herritarren izerditik beren patrikarako mozkinak zakuka harrapatzeko abilezia berezia duten antena eta beso luzeko labezomorroak. Nago plaga hori guztiz desagerrarazteko pestizida eraginkorrik nekez duela gizarteak inoiz asmatuko. Herritarrena dena lapurtzeko gai den zomorroaren erradiografiak erakusten baitu ustelduta


duena ez dela gramo bat, baizik eta gramo ondradu bakar bat ere ez duela. Hainbeste, non itsutu eta akaina lez iltzatzen zaiola diru publikoari harrokerian mozkortuta berea dela pentsatzeraino.
Akainen hazitegi nagusia mailua hain maisuki erabiltzen duten Espainia aldeko Genova kalean bertan badago ere, gogora dezagun gaitza Pirinioetara zabaldua dagoela. Espainiar zerbitzuek Pujolen ipurdia airera atera zuten bezalaxe eginen baitute Arzallusen ordezkoeekin, genovatarren interesen kontrako norabiderik inoiz hartuko balute.
Apustu euskal abizen esanguratsuenek ere badutela labezomorrotik-tik-tik... Akainak ez baitu lurraldeen arteko mugarik ezagutzen. Eman denbora... •



Amaia
BALLESTEROS

iRRITZIA:

LUR AZPIKO ABENTURAK



INFOZAZPIK, HAMAR URTE

Oinarritz herritarra eta egiterako garaian profesionala den irratia, uhinak anizten

📁 KOMUNIKAZIOA / Garikoitz Mujika Zubiarrain

Informazioan espezializatutako Infozazpi irratia 2006ko urtarrilaren 27an hasi zuen bere ibilbidea. Lankidetzak zer egin dezakeen ezin hobeto islatzen du: egun 9 langile ditu, baina 150 bat kolaboratzaile. Irratia posible egiten dutenen artean 2.000tik gora bazkide eta FM seinalea zabaltzen duen herriz herri ehundutako laguntzaile sarea ere badaude.

Elkarlana du Infozazpik ikur. «Horrexek egiten du neurri honetako irratia bat posible», onartu digu Eider Olazar kazetari eta irratia sustatzen duen Azti Begia elkarteko lehendakariak. Talde sortzailean ibilitako Iñaki Altuna kazetariak ere bat egin du berarekin: «Lehen unetik

sartu ginen irratia libreak biltzen dituen Arrosa sarean eta komunikabideen arloan bereziki GARA eta 'Berria' egunkariekin lotutako mundua inplikatzeko egin genuen indar». Herri mugimenduari «ateak parez pare ireki» zizkioten. Elkarlana nahi zuten.

Bidea emankorra izan da. Hiru adibide lekuko: Arrosak ekotzitako "Zebra Bidea" magazin

2013ko lantaldea: goian, ezker-eskuin, Amaia Zurutuza, Jon Mikel Fernandez, Maddi Mochales, Antton Paulus Basurko eta Oinatz Aizpur. Behean, ezker-eskuin, Oihan Larrañaga, Larraitx Otazo, Maite Bidarte eta Amaia Elixiri. INFOZAZPI

«potentea»; "Kirol leihoa" emakumezko kirolari eskainitako saio «erreferentea», Mikel Ibargoien esatari duena; edota UEUK hilero ekoizten duen "Aditu duzu". "Bakarka nekez, elkarrekin erraz" esaera egiaztatua dute. Ez du Altunak zalantzarik eredu aberasgarria denik, eta, mugak badituen galdetuta, argi mintzatu da: «Ez, osatu beharrekoa da. Norberak bere bizkarrezurra behar du, gero elkarlana onura hobeto jasotzeko».

Bi estudio ditu irratia. Nagusia Urruñako Martinzaharrenea lan eremuan dago, Lapurdin; bigarrena Donostian, Igara poligonoan. Horrez gain, Hala Bedi irratiko estudioekin lotura bermatuta dute; «asko inplikatu dira beti» eskertu die Olazarrek.

Nabarmen antzematen dute sare sozialetan «ikaragarri zabaldu dela» irratia azkenaldian. NAIZ atariarekin batera jarduteko erabakiak jorratu gabeko so-



ro horren langa ireki dio parez pare Infozazpiri. Teknologia berrien aukerak baliatzen jakin du. Azken hamarkadan irauli egin da komunikabideak kontsumitzeko modua. Batetik “nahieran” eredua iritsi da; bestetik, gero eta multimediagoak dira hedabideak. Ustez eragozpena zena, Internetez emititzen hasi beharra, aukera bihurtu dute denborarekin. «Duela hamar urte oso gutxi erabiltzen ziren *podcast*-ak eta orain...», aipatu digu Olazarrek. Tablet eta sakelakoetarako irrati aplikazioa sortua dute. Hedabide gisa «toki esanguratsua izatea» ekarri die horrek guztiak Azti Begia elkarteko lehendakariaren iritziz.

ALBISTEGIAK

Irratiko menuan plater nagusia albistegiak dira. Goiz, eguerdi eta gau partean izaten dira zita nagusiak, lehena gazteleraz. Bestetik, “Kale Gorrian” magazina dute ikur nagusia, 07:30etatik eguerdira arte irauten duena. Edukiz eta kolaboratzailez asko sendotu da Olazarren hitzetan. Iñaki Altuna kazetariari Infozazpi sustatzera zerk bultzatu zituen galdetuta, argi erantzun digu: «Sekulako zuloa sumatzen genuen. Diala ikustea besterik ez zegoen, eta dago. Komunikazio talde frantses eta espainolak dira nagusi. Lakuak ‘euskal’ erreferentzia EiTbko irrati publikoen esku utzi nahi izan du beti, eta, gero, irrati libre eta tokian tokiko irratien errealitatea besterik ez da geratzen». Hala, Euskal Herri osora begira lan egiteko bokazioa izango zuen irrati baten beharra ikusi zuten. Komunikazio arloko hainbat jende batu zen talde sortzailean, GARAtik, Euskal Irratietatik, Baietz fundaziotik, Egin irrati ohitik. Izen bat datorkio, ordea, ezpainetara Altunari: duela bi urte hildako Aitor Renteria Txato “Berria”-ko kazetaria. 2004ko hondarrean hasi ziren harremanetan, ideiak idazten... Elkarte handik gutxira aurkeztu zuten Andoingo Martin Ugalde parkean. Urtebete joan zitzairen irrati martxan jartzerako. Jende asko ibili da mikrofono-otan hamar urteotan. Horieta



Goiko irudian, lehen saioa. Erdian, Infozazpiko estudioa. Behean, irratiaren sarea osatzen duten hainbat lagun. GAUR8

bat da Agin Laburu kazetari eta bertsolaria. Orduko oroitzapenak eskatuta, horren berea duen umore zorrotzarekin erantzun digu: «garrantzitsuenak meriendak», Ekhiñe Atorrasagasti, Larraitx Otazo eta hirurek «zabor-ontzitik ogi koskorak hartuz» egiten zituztenak –ogia erostea ahazten zitzaaien beti-. Gutxiarekin asko egin behararren metaforatzat erabili du hori Laburuk, «gauza oso politak atera ziren giro ezin hobeko miseria gorri hartatik», zehaztuz.

ARZALLUSEN ARDO BOTILA

Gogoan du Laburuk lehen elkarrizketa zendu berri den Kontxu Odriozolari egin ziola; «oso berezi» dauka gordeta. Elkarrizketa zailak ere baditu gogoan, Gari abeslariari egindakoa kasu. Oro har, baina, «oso ondo» joaten zen guztia; «pentsa, Xabier Arzallusekin ardo botila jakatuz» amaitu zuen elkarrizketa bat. Izan ere, buruzagi jeltzale historikoak 2009ko hauteskunde autonomikoak EAJk irabaziko zituela baina lehendakaria ez zela Ibarretxe izango esan zion antenan; Laburuk ezetz, EAJkoa izango zela. Ardo botila egin zuten apustu. Patxi Lopez izendatu zutenez lehendakari, han joan zen kazetaria ardo botilarekin Arzallusen bulegora. Egun hartan ETAk Eduardo Puelles poliziaburua hil zuela gogoa du, eta Arzallusek esan ziola: «Begira, ETA hilda dagoela pentsatzen zuten batzuek, baina ETAk indar asko du». Horrelakoxe titularrak eman zizkion. «Herri proiektu batek hamar urte betetzea ospatzekoa» dela nabarmendu du Olazarrek, eta hori Infozazpi irratiaren posible egiten duen komunitate zabalarekin batera egin nahi dutela. 2016 osoa baliatuko dute horretarako. «Kanta dantzagarri bat martxan» dela aurreratu digu, «laster entzuteko aukera» izango dena. Bazkari handi bat eta jaialdia bat ere iragarri ditu. Bi Argia sari jaso dituzte irrati programak. Labururi eta hark gidatutako “Bostetako diligentiari” 2010ean eman zioten saria, bereziki, 2009ko Bertsolari Txapelketa Nagusiaren jarrai-



penagatik –sailkapen-saio guztiak zuzenean ematen aitzindari izan ziren–. Olazarrek eta har gidatutako “Kale Gorrian” saioak, berriz, duela bi urte jaso zuten aitortza. «Herri proiektu bat noraino irits daitekeen erakusten du», uste du Olazarrek. Zeharka hirugarren Argia saria ere badu Infozazpi; Arrosak ekoitzitako eta Nekane Zinkunegik gidatutako “Zebra Bidea” magazinak jaso baitzuen saria 2015ean.

LIZENTZIAK, EPAITEGIAN

2012an izan zen 30 urtean lehen aldiz lizentzia esleipenerako lehiaketa bat EAEn. Patxi Lopez-en Gobernuak egindako deialdi hartan lortu zituen FM frekuentziak Infozazpi beste elkarte batzuekin aurkeztutako proiektuak. EAJk boterea berreskuratzean, ordea, ezerezean utzi zuen lehiaketa. Auzitara jo zuten kaltetuek. Espainiako Auzitegi Gorenaren ebazpenaren zain dago afera uneotan. Itxaropentsu da Olazar, eta lizentziak izatea proiektu gisa «jauzi egiteko esanguratsua» izango delakoan da. Nafarroan, batez ere iparrean, lortuta dituzte lizentziak. Gune horietan albisteak «epe motzean» etorriko direla aipatu du. Ipar Euskal Herrian,

Eider Olazar, 2014an «Kale Gorrian» magazinagatik jasotako Argia saria eskuetan. Kazetari izateaz gain, Infozazpi irratia sustatzen duen Azti Begia elkartearen lehendakaria ere bada tolosarra.
Jon URBE | ARGAKI PRESS

aldiz, hiru eskaera egin eta beste horrenbeste ezezko jaso dituzte.

Buruan herdoilik ez du Olazarrek. «Berrasmatu beharra dago», bota du erronka. «Gure baliabideak hedabide handien aldean murrizak» direla aitortu du, baina «gutxiagorekin kalitatezko eduki ezberdinduak sortzean» dakusa koska. Tertulien adibidea ekarri du, orojakile papereko tertulia formatutik ihes egiteko beharra. «Orojakile izatea ez da erreala eta gainera ahots asko isilarazten ditu, hein handi batean, emakumeenak», zehaztu du. Gogoeta horrekin agurtu dugu Olazar. Aurretik, irratia «etorkizun oparoa» iragarri dio. Urteurreneko leloak dioen bezala, «kontatzekoa bada, entzuteko baitago» Infozazpi.

Zendu berri den Kontxu Odrizolari egin zion lehen elkarrizketa Agin Laburuk. EAJko Xabier Arzallusekin, berriz, lehendakari nor izan ardo botila apustu egin eta galdu egin zuen...

Berrasmatzeko premia ikusten du Eider Olazar lehendakariak, «gutxiagorekin kalitatezko eduki ezberdinduak sortzeko». Teknologia berrien olatua bete-betean hartu du Infozazpi

Zorionak, maitea!

Maidar Iantzi Goienetxe

Zorionak, maitea!», eta arrosa gorri bat opari. Eta handik ordu batzuetara, edo ordu batzuk lehenago... piiiii-piiiii-piiiii-piiiii... Lohitzune Zuriñerekin dago kafe baten bueltan, baina ez die lagunaren kontuei kasu handirik egiten. Mobiletik galdezka du bere mutila, Julen. «Non zauden? Norekin? Zertan ari zarete?». Dendan erosketak egiten ere *whatsapp* eta *whatsapp* artean betetzen du karroa, eta kaletik idazten doala ia jo du farola bat. «Agur mezua 00.00etan idatzi zenidan, baina 00.10ean konektatu zinen azkenekoz. Zeinekin egon zinen?»... ..

«Zorionak, laztana!», zuretzat da eraztuna. Eta handik ordu batzuetara, edo ordu batzuk lehenago, Mari Kruz ezbaian dago ispilu aitzinean: «Ongi gelditzen zait soinekoa, baina seguru Jose Luisi ez zaiola gustatuko esko-tea». Etxekoandrea da Mari Kruz eta bere lanorduak zenbatezinak izan arren, ez du soldatarik jasotzen. Horregatik, apuroa ematen dio beretzako diren gauzak eros-teak eta diru gehiegi gastatzeak. Senarra arduratzen da etxean diru kontuez.

Bihar San Valentin Eguna da. Agian ospatuko duzue, agian ez. Baina aitzakia bikaina izan daiteke maitasunaz hausnartzeko. Adibidez, amodiozko filmetan eta nobeletan aldiro istorio bera kontatzen dela ohar gaitetzke: emakume baten ibilbidea gizon bat lortu arte. Gero ez dakigu nola bizitzen diren, justu harremana hasten denean bukatzen baita kontakizuna. Zergatik pentsatzen dugu maitasunean dena dela libre? Gizonek eta emakumeek desberdin maitatzen dugu?

Erich Frommek idatzi zuen bezala, maitatzea ikasi beharreko zerbait da, ezagutza eta ahalegina eskatzen dituen artea. «Ongi maitatzea artelan on bat bezalako da». •



Gorka Zozaia - @zotz__
Kimikaria

Unibertsoaren sinfonia entzungai

Azkenean bete dira aurreikuspenak eta ostegun honetan emandako prentsaurrekoan LIGO (The Laser Interferometer Gravitational-Wave Observatory) nazioarteko esperimentuaren arduradunek baieztatu dute uhin grabitazionalak detektatu dituztela. Hain zuzen, Albert Einsteinek duela ehun urte unibertsoaz egindako azken iragarpen handia frogatutzat eman dute, eta, horrek, noski, zirrara handia eragin du zientzia komunitatean azken hilabeteotan. Orain arte soilik modu ez-zuzenean genuen uhin grabitazionalen existentziaren berri, 1978an pulsar binario batek (batera orbitatzen duten bi izar, horietako bat pulsarra) orbita apur bat aldatzen zuela behatu zenean, Einsteinek auresandako neurri berean, energia uhin grabitazional gisa askatzean. 2003an gauza bera frogatu zen bi pulsarrek osaturiko bikotean. Oraingoan, berriz, duela 1.300 milioi urte bi zulo beltzen artean emandako besarkada bortitzak eragindako uhin grabitazionalak dira hemen, Lurrean, detektatu direnak (Eguzkiaren masaren halako 29-36 bider, masan hiru Eguzki galdu zituztenak, $E=mc^2$ erlazio ezagunaren bidez, segundo frakzio batean, honaino heldu diren uhin grabitazionalak sortzeko).

Baina, zer dira ba uhin hauek eta zergatik da horren garrantzitsua aurkikuntza hau? Uhin grabitazionalak, espazio-denboraren (unibertsoa egiten duen materialaren) bibrazioak dira, putzu bateko uhinen edo soinu uhinen antzera jokatzen dutenak, baina espazio eta denbora deformatuz, eta, teoriarik, argiaren abiaduran bidaiatuz. Ikusi bezala, gorputz bortitzek masa zati bat energia gisa modu horretan askatzean sortzen dira eta bere bidean planeten arteko distantziak alda ditzakete, sorreratik gertu espazio eta denbora aldaketa ekaitz handiak sorraraziz, eta urrunean aldaketa ia detektaezinak eraginez. Hain zuzen, hori izan da LIGO esperimentuaren arrakasta. Caltech, MIT eta hamabost herrialdeko 1.000 ikerlarik garaturiko instrumentu optikoa handia da LIGO, "L" formako bi detektorez osatua, bata bestetik hiru mila kilometrora kokatuta, "L" horren beso bakoitzak lau ki-

lometroko luzera izanik. 2002tik ari da lanean, baina aurreko urtean bere laserren sentsibilitatea hamarkoiztean hasi da emaitzak ematen, nahiz eta bere potentzia maximoa 2020rako aurreikusten den. Aurtengo udazkenean, berriz, europarren VIRGO bertsio hobetua martxan jarriko ei da eta Europar Espazio Agentzia ere ari da LISA, uhin elektromagnetikoen behatokia, prestatzen.

Ez da harritzekoa joera hau, izan ere, unibertsoaren esplorazioan bide berri bat irekitzen baitu uhin grabitazionalen azterketak. Orain arte, kosmosetik heldu izan zaigun argia bakarrik behatu izan dugu, bai argi ikusgaia, milaka urteetan zehar unibertsoaren ezagutzaren oinarri izan dena, bai infragorri, irrati-uhin, X izpi zein espektrora zabala jasotzeko teleskopio moderno eta erraldoien bidez jasotakoa ere –azken ehun urteotan ezagutza ikaragarria eragin dute tresnok–. Denak oinarritzen dira uhin elektromagnetikoen detekzioan, eta horrek muga handia suposatzen du, besteak beste, unibertsoaren gehiengoa osatzen duen materia iluna, zulo beltzak eta abar aztertzeko. Orain

arte kosmosari begira egon bagara, esan dezakegu aurrerantzean kosmosa entzuten egon gaitzkeela, beste zentzumen baten jabe. Are, uhin batzuen maiztasunak soinuaren antzekoak dira eta entzuteko moduan itzul daitezke!

Teknikaren eta teoriaren arteko dialektika honetan, ikustear dago uhin grabitazionalen azterketak zer ematen duen. Momentuz, Einsteinek duela ehun urte auresandakoa soilik erdizka bete dela ere esan genezake, uhinon existentzia auresan zuen bezala, hemen detektaezinak izango zirela ere iragarri baitzuen. Jakintzarekin zuhurtziaz jokatzea dagokigu; berriki Big-Bang teoriaren arabera existitu ezin den galaxia bat topatu ei da, eta, atzo arte uste genuenaren aurka, babiloniarrek gramatika aurreratu erabiltzen zuten planeten posizioak kalkulatzeko. Eta nork daki (edo ziur aski?), grabitazio eta presio maila handiagok behatzen hasi, unibertsoaren gainerako %95ean muturra sartzen hasi, eta Einsteinen teoria orokorrak ez du mendea baina askoz gehiago iraungo... •



LIGO esperimentuan lanean ari diren ikerlariak uhin grabitazionalak detektatu dituzte.

{ koaderno } **Garazi Goia**

Poesiak, errutinak eta sorpresak

Ez ditut behin eta berriz errepikatzen diren eguneroko ohikeriak gehiegi atsegin. Inprobisazioak eskaintzen duen zirrara faltagatik. Aspertzeko beldurak bertigoa ematen didalako. Edo, gauza gehiegi daudelako egiteke bizitzan; gauza gehiegi daudelako denbora hain preziatua egiten dutenak. Bada esaera bat ingelesez, askotan aipatzen didatena nire ingurukoek: «Plater gehiegi dituzu makilen gainean biraka. Akaso, onartu beharko duzu, bat edo beste lurrera erortzeagatik ez dela ezer gertatzen». Baina onartzea, etsitzea da. Plater gutxiago biraka dituztenak kezka gutxiagorekin dabil-tza, normalean. Kanpotik itxura hori ematen dute behintzat. Ez dituzte hainbeste amets lortzen ordea.

Orokorrean, ez ditut errutinak gogoko. Baina salbuespenak daude, noski, gauza guztietan bezala. Eta, nik ere, goizeko lehenengo kafea hartzen dudanean edo kafea hartzeko denborarik ez dudanean, lanera joateko autobusera igotzen naizenean, beti gauza berdina egiten dut: poesia bat irakurtzen dut. Goizalde Landabasok bidalitako poesia bat.

Derek Walcott poetaren istorioa jakin dut aste honetan. Hain zuzen, Landabasok poesia bat bidaltzen digun bakoitzean, poeta bat aurkezten digu eta aurkezpeneri paragrafo txiki bat gehitzen dio; gogoeta batekin, poetaren bizitzako gertaeraren batekin, edo besterik gabe, goizeko ordu txikietan, ordenagailua piztu eta guri mezua bidaltzera doanean burutik pasatzen zaion zerbaitekin.

Horrelaxe ezagutu nuen aurreko astean Derek Walcott poeta eta “Maitasuna, maitasunaren ostean” izenburuko poesia. Azken lerroak itzultzen ditut hemen, merezi dutela iruditu zitzaidan irakurri nuen unean. Eta, gaur, berriro ere poesia horren bila hasi naizenean, antzeko zerbaite sentitu dut. Horrela diote lerrook: «Jaso idazmahaian dauden gutunak, argazkiak eta etsipenezko lerroak./ Askatu zure irudia ispilutik./ Eseri zaitez./ Ospatu zure bizitza».

Eta, honokoa esanez aurkeztu zigun Landabasok Derek Walcott: «Gaurko poetaren izena Derek Walcott da.

Karibeko irla txiki bateko poeta, Santa Luziako. 1992. urtean Nobel saria lortu zuen, edo eman zioten. Antzezlanak idazten dituen anaia bizki bat dauka, Roderick Walcott. Gurasoek poesia idazten zuten eta, finean, zer espero daiteke poesia artean hezitako umeengandik? Bada, horixe».

Idazlearen poesia gehiago irakurri ditut aste honetan. Baita bere bizitzari buruz idatzi bat edo beste ere. Agidanez, hamalau urte zituela argitaratu zituen Walcott bere lehenengo lerroak. Erlijio gaiak jorratzen zituen poesia bat zen eta apaiz katoliko batek arnegu bat zela esan zuen. Hemeretzi urte zituela, bere poesia liburua argitaratu nahi zuela esan zion amari eta horretarako berrehun dolar behar zituela. Saint Luciako eskola bateko irakaslea zen bere ama eta ez zuen dirua

Bada esaera bat ingelesez, askotan aipatzen didatena nire ingurukoek: «Plater gehiegi dituzu makilen gainean biraka. Akaso, onartu beharko duzu, bat edo beste lurrera erortzeagatik ez dela ezer gertatzen». Baina onartzea, etsitzea da

erruz irabazten. Gainera, alarguna izanda, familia arerrera ateratzeko ozta-ozta iristen zitzaion, eta, horrez gain, berrehun dolar aurkitzea benetako esfortzua zen. Ama erabat kezkatuta ikusi zuela gogoan omen du Walcott, benetan egin nahi zuena semeari laguntzea zelako. Nolabait dirua lortu omen zuen. Walcott bere poesia bilduma Trinidad irlara bidali zuen bertan inprimatzeko. Liburuak bidali zizkionean, bere lagunaren artean saldu zituen eta amak emandako diru hura erreperatu zuen.

Nonbait irakurri dut esaldi hau; ez dakit non, baina ez zait sekula ahazten. «Nola esango diot nire alabari bere ametsak jarraitzeko, nik neureak jarraitu ditudala erakutsi ezin badiot».

Ospatu zure bizitza.

Platertxoek biraka jarraitzen dute. •

«Helburuei eutsiz, betaurrekoak aldatu behar ditu askapen mugimenduak»

Posible ote XXI. mendean estatu burujabe berri bat sortzea? Eta posible balitz, nola eraikiko litzateke? Eta zer antolamendu politiko izango luke? Badi-ra hamarkada batzuk jada Euskal Herriaren independentziaz hausnartzen hasi ginela. Denborak, ordea, aurrera darrai, eta berarekin darama gizarte oso bat, pentsamoldez eta jokamoldez etengabe aldatzen doan gizarte bat. Hori hala, ba ote du gaurkotasunik independentziaren aferak XXI. mendeko Euskal Herrian? Eta hala balitz, zer iturri ideologikotatik edaten du? Eta zer bilakaera historiko izan du?

Serie baten lehen pasartea baino ez da datozen lerroetan aurkituko duzuna. Independentziaren inguruan hausnartzen jarri ditugu Andoni Olariaga –pasarte honetako protagonista–, Unai Apaolaza, Jule Goikoetxea eta Imanol Galfarsoro. Aitzakia, “Independentzia helburu” izenburupean argitaratu duten saiakera. Hala, lau astez jarraian aipatu protagonistotako bat ekarriko dugu GAUR8ren orriotara. Hasteko, Andoni Olariaga. “Hautsi da anphora. Erresistentziatik eraikuntzara” bezala bataiatu du bere saiakera. Ea ba zertan den.

Indartsu ekiten diozu lanari. Diozu euskal askapen mugimendua erantzun batzuekin baina galderarik gabe geratu dela. Zer dela eta?

Garai historiko bakoitzak iturri intelektual jakin batzuetatik edaten du, borroka batzuetatik, historiako gertakizun batzuetatik. Euskal askapen mugimendua, gaur egun ezagutzen dugun moduan, 60ko hamarkadan gorpuztu zen, beste galdera batzuk egiten ziren garai batean, beste garai bateko literaturarekin, bestelako testu-inguru soziopolitiko batean. 50 urte hauetan, ordea, gauzak asko alda-

ANDONI OLARIAGA

ERRESISTENTZIATIK ERAIKUNTZARA

Filosofian lizentziatua, Lapiko Kritikoa kolektiboko kide da egun Andoni Olariaga (Berriz, 1984). Berriki, Jakin taldeko partaide izendatu dute.

Aimar Etxeberria Korta



tu dira mundu mailan, eta, tes-tuingurua aldatzearekin batera, galderak ere aldatu egin dira. Sinpleki esanda, euskal askapen mugimenduak dituen erantzunek beste garai bateko galderei erantzuten diete.

Zeintzuk ziren, bada, atzean utzi dugun garai historikoaren ezaugarri nagusiak?

Euskal askapen mugimenduari dagokionez, ezaugarri bat gatazka eredia bera izan daiteke. Soziologikoki jada gaingaituta dagoen “nik kolpatzen zaitut, zuk kolpatzen nauzu” eredia, hots, estatua-rekin aldebikotasun borroka bat planteatzen zuen eredia. Soziologiak demostratu du eskema hori agortuta dagoela; baina bere garaian balio izan zuen. Beste ezaugarri bat nazio ikuspegia izan daiteke. Garai hartako literaturari erreparatuta, aurkitzen gara nazio ikuspegi batekin zeinak ez duen kontuan hartzen nazio bat identitate kolektibo baten emaitza dela. Nazio ikuspegi erabat esentzialis-ta da, antihistorikoa, zeinak dioen helburua behinola existitu zen nazioa berreskuratzea dela. Pentsaera horrek ekarri du, adibidez, Nafarroako Estatuaren berresku-raparen ideia muturrera dar-maten munstroen sorrera. Ikusmolde horrek, ordea, ahaztu egiten du nazioa egunero-egune-ro eraikitzen eta deuseztatzen de-la, modu oso tribialean gainera: egunkarien bidez, telebistarekin, egunero kontsumitzen ditugun gauzen bidez...

Bereizgarriena, ordea, politika ulertzeko modua bera da. Erakun-de armatua –ETA– sortu zenean, eta ekinbide armatuari bide eman zitzaionean, guztiz beharrezkoa zen gatazka politikoaren planteamendu mitiko bat egitea. Hau da, Estatuarekin gatazka ba-tean sartzen gara eta egunen ba-tean iritsiko da momentu bat non negoziaketa batzuen ondorioz gu-re helburuak erdietsiko ditugun. Ikuspuntu horrek marxismo zah-hrarekin dauka zerikusia, zeinak iraultza eguna, aurreko gizar-tea eta ondorengo gizartea bereizten zituen. Sinbolikoki in-dar handia duen ikuspuntua da, euskal askapen mugimenduak garatu duen bezalako borroka ba-

tean ilusio eta esperantza piztaile delako. Baina gerora elementu horiek guztiek sortu dute mugimendu bat, lausotzen oso zaila den identitate bat. Hori ezin da goizetik gauera aldatu, eta orain trantsizio fase horretan aurkitzen da euskal askapen mugimendua. Hori hala, jendeak bere burua birziklatu beharra dauka.

Birziklatu, bai, baina, lurzoru lanak egingo dituen paradigma filosofikoa falta baldin bada, zeren gainean?

Hori da euskal askapen mugimenduak duen tragedietako bat, baina, aldi berean, duen indargu-neetako bat ere bada. 60ko ha-markadan “nahikoa” zen gerrillen borroka egiteko, adibidez, Che irakurtzea; eredu organizatiboak ere kopiatu egiten ziren, baita nazio ikuspegi edo askapen estrategiak ere. Horiekin lurzoru finko bat osatzen zen, Biblia bezala jarraitzen zena. Gaur egun, ordea, ez dago errezetarik ezkerrentzat, ezkerre bera ere galdu antzean da-bilelako. Eta askapen estrategie-kin ere gauza bera pasatzen da; is-piluak falta dira. Baina abagune egokia izan daiteke oharrezko po-litikaren funtsa apustua dela, eta apustuak egiteko alde z aurretiko erreferentziak balia daitezkeela, modu partzial batean betiere.

Baina, lurzoru finkorik bada, hori da aldaketa guztiak gizartearekin batera eman behar direla. Hala eginez gero, eta ez duzunean dena eliteen arteko negoziaketa baten pean uzten, egindako aurrerapausoak, txikiagoak izanaga-tik ere, atzera bueltarik gabeak di-ra. Euskal askapen mugimendua oso ohituta egon da aldiz aurretik estrategia finko eta hertsia disei-natzera; Katalunian, adibidez, he-rri galdeketen uholdea hasi zene-an ez zekiten nora iritsiko ziren. Ekimenak, baina, masa kritikoa bat eta baldintza objektibo batzuk eraiki ditu, eta horrek ahalbidetu ditu ondorengo estrategia guz-tiak.

Paradigma aldaketa edo, zuk diozun bezala, erresistentzia fa-setik eraikuntza fasera igaro-tzea. Noiz hasi eta noiz amai-tzen da erresistentzia fase hori? Eta zer ezaugarri ditu?



Argazkiak: Jaizki FONTANEDA | ARGAZKI PRESS

*«Hain izan da
tragikoa borroka,
eta hain izan dira
hertsia
borrokarako erabili
diren ideiak, hori
bera dela lehertu
dena. Jendeak
kontzeptu edo
estrategia jakin
batzuetara lotu du
bere identitatea.
Orain, baina, ari
gara eskatzen
jendeari gaur arte
sinesten zituen
elementu batzuei
uko egiteko»*

Zaila izaten da data zehatz batzuk ematea. Baina, sinbolikoki, esan daiteke erakunde armatuaren sorrerarekin hasten dela erresistentzia fasea eta jardun armatua uztearekin batera amaitu. Egia da fase horren baitan eman direla eraikuntza zantzu batzuk ere, baina aurrez azaldutako elementu horiek guztiek sustengatzen duten garai historiko batean zaila da eraikuntzaren praktika bere osotasunean garatzea. Fase baten amaieraren isla dira ondoren datozen erreakzioak; asko okerrak, aurreko klabeekin eginak baitira.

ETAren behin betiko su etena ulertzeko bi klabe dituzu: bata, estatuek ordainetan eman dutenari erreparatzea; bestea, gizartearen aurrean irabazi duzun horretan fokua jartzea. Analisiak lehenengo klabe horrekin eginez gero, argi dago armen uztea porrot handia izan dela, estatuek ez baitute ezer eman trukean. Irakurketak bigarren ikuskerarekin egin badi-tuzu, baina, gauzak asko aldatzen dira. Zer da irabaztea politikan? Irabaztea ez da estatuak kontzesioak egiten joatea, gizartearen aurrean zilegitasuna irabazten joatea baizik. Hori hala ulertuta, lorpenak handiak izan direla esan genezake, sozialki zein politikoki. Jendea, baina, erretxindu egiten da, eskema eta betaurreko zaharrekin dabil eta.

Mundua ikusi eta ulertzeko betaurrekoak zaharkituta geratu zaizkigu, beraz.

Zure betaurrekoak oinarritzen badira eskema batean non aldagaiak diren “borroka militar bat dago, negoziaketa bidez konponduko dena”, hots, iraultzaren irudipen guztiz mitikoa baldin badaukazu, betaurreko horiek jada ez dute balio. Baina gauza bat argi utzi behar da: ez dira euskal askapen mugimenduaren helburuak zaharkituak gelditu direnak. Helburu berak izanik betaurrekoak aldatzean dago gakoa.

Izan daiteke betaurreko berrien falta sortzen ari den disidentziaren arazoetako bat?

Hain izan da tragikoa borroka, eta hain ideia hertsia behar izan dela borroka horretarako, hori bera dela lehertu dena. Jendeak kontzeptu edo estrategia jakin batzuetara lotu du bere identitate emozional eta kolektiboa. Mugimendu politiko batek sortu du identitate hori, sinbologia oso indartsuarekin. Egoerak berak eraman du horretara. Orain, baina, ari gara eskatzen jendeari gaur arte sinesten zituen elementu batzuei uko egiteko... Normala da jendea minduta egotea. Baina esan behar da egun euskal askapen mugimenduaren baitan ematen ari diren eztabaida asko ez direla intelek-



*«Lurzoru finko
berririk bada hori
da aldaketa guztiak
gizartearekin eman
behar direla. Hala
eginez gero, eta ez
duzuenean dena
eliteen arteko
negoziaketa baten
pean uzten,
egindako
aurrerapausoak,
txikiagoak
izanagatik ere,
atzera bueltarik
gabeak dira»*

tualak; hainbatek bere identitatea babestu eta gordetzearekin duen nahiarekin dute zerikusi handiagoa.

Zer ezaugarri izan beharko litzukete mundu ikuskera edo betaurreko berri horiek?

Erresistentzia izpirituaren beste ezaugarri bat da errealismo politikoa. Errealismoa ez zentzu posibiliba edo pragmatiko batean, alderantziz baizik. Zentzu horretan, George Lakoff hizkuntzalariaren aipatu bat ekarri nahiko nuke: «Errealitatea ‘ez da existitzen’, errealitatea marko batzuen bidez hauteman edo ulertzen dugu». Hala, batzuk errealitatea erakusten ahalegintzen diren heinean, besteek errealitatea hautemateko betaurreko berriak ematen dituzte. Kontua da errealitatea deskribatzen ez direla kontzientziak pizten; ezkerak betaurrekoak disputatu behar ditu. Eta hori borroka ideologikoaren bidez gartzen da. Beraz, euskal askapen mugimenduak borroka ideologikoa lehenengo mailara eraman behar du, marko berriak sortu behar ditu. Pentsa genezake “ezkerak” edo “independentziak” esanahi bat dutela, baina ez. Kontzeptuek, bere horretan, ez dute esanahirik; kontzeptuak borroka esparru dira. Hala badira da aktore politiko batzuk kontzep-

tuak esanahiz bete nahian ari direlako. Ezkerra ahalegintzen da bere burua berrasmutzen, kontzeptuei beste esanahi bat ematen, baina galdu egiten du. Zentzu horretan, euskal askapen mugimenduak onartu behar du zertan irabaz dezakeen eta zertan ez, eta onartu behar du ere ez dela berak nahiko litzuzken joko arauarekin jokatzeko ari. Horregatik, garrantzitsua litzateke lekuan leku marko egokiak hautatzea borroka ideologikoaren garapenerako.

Garai historiko berri honetan asko aipatzen den kontzeptua da aldebakartasunarena. Zer ekarpen nagusi egiten du eta zer potentzial dauka?

Aldebakartasunak eskaintzen duen indargune handiena da aldebikotasunarekin alderatuz gero gizarteak hartzen duela pisu osoa. Aldebiko eskeman pisu handia hartzen zuen ETAren ahalmen militarrek. Horretan jartzen da fedea eta horretara bideratzen dira esfortzuak. Aldebakarreko eskeman, berriz, zure ahalmenetan dago gakoa. Aldebakarreko eskeman ez da hain garrantzitsua estatua behartzearen ideia; egunero ari zara herria egiten estatua kontuan hartu gabe. Edozein eremutan balio lezake gainera: Gure Esku Dago, Euskal Herrian Euskaraz, Sare, bestelako mugimendu so-

zialetan... Irudikatzen duzun mundu hori ari zara eraikitzen, eta indar guztiak jendea ahaldundu, mobilizatu eta zeureganatzera bideratzen dituzu. Aldaketa totala da. Baina erresistentzia handiak daude gaur-gaurkoz aldaketa hori emateko. Oraindik orain “beste”-ri begira (estatuak, EAJ) egiten dituz mugimendu gehiegi euskal askapen mugimenduak. Kontua da ezin duela estrategia guztia horretara bakarrik bideratu, ezin duela bere proiektuak besteen akatsetan oinarrituta egon. Adibidez, Kataluniako kasuan argia da Estatu espainiarraren jarrerak independentismoa hazten lagundu duela, baina hazten lagundu duen moduan jaisten ere lagun lezake. Besteari begira baino hobe norberaren proiektuan jartzea indarrak; modu horretan ere lortuko duzu bestea mugiaraztea noizbait, herria sortzea.

«Herria sortu» diozu. Zein oinarriekin sortu izan du herria abertzaletasunak? Zer galga izan dezake horrek etorkizunera begira?

Abertzaletasunak herria edo subjektua sortzeko erabili dituen estrategia batzuk antzuak dira, esaterako gaur egun errepikatzen den lelo bat: “Euskal Herria inbaditua izan zenez, eskubidea daukagu berau berreskuratzeko”. Hori aurrez aipaturiko errealismoa da, okerrenekoa gainera. Euskal Herria berreskuratu behar dela diote, baina, berreskuratu, zer? Orain bost mende lapurtu ziguten bokadiloa jada jan dute, eta egun ez da existitzen. Ez dago ezer berreskuratzeko. Baina bada abertzaletasun mota horren garaipenik ere: lurraldetasunarena. Guztiz idealista izan da zazpi lurraldeen ideia, baina momentu batean balio izan du Euskal Herriaren ideia sustengatzeko. Eta ezinbesteko garaipen bat izan da.

Abertzaletasun esentzialista horrek, baina, baditu bere mugak ere. Ditugun hainbat mugimendu herritar oso folklorikoak dira, tamalez, eta abertzaleen arteko batasuna dute helburu –beste mito zahar bat–. Estrategia horrek tope argi bat dauka, eta da abertzaletasunak berak jartzen duena. Galga hori gainditu nahi bada, arrazoi



identitarioez gaineko beste batzuk batu behar dira independentismora. Hori lortzetik oso urrun dago euskal askapen mugimendua, batez ere egiten dituen ekimenetan “euskal” bezala definitzeko sinboloak soilik erabiltzen baditu. Herri hau plurala baldin bada, zergatik ez sartu bestelako nazio sentimenduen sinboloak ere? Zein da helburua, independentzia lortzea edo identitatea mantentzea?

Garatu den abertzaletasun esentzialista horrek, baina, izango du ondorio positiborik ere, ezta?

Politikak asko dauka sinbologiatik eta alde irrazionaletik, eta gutxi arrazionaletik. Abertzaletasunak asko eragiten dio alde irrazional horri, eta horregatik mobilizatzen

«Zein da gure helburu estrategikoa, estatu jakobino bat ala gure balioekin estuago lotzen den estatu konfederal bat?»



du gehiago motibazio politiko gisa. Zentzu horretan, abertzaletasunak duen indarra “zureak” eusteko duen gaitasuna, fidelitatea da. Hori hala, ezin da erabat arrazionala den independentismo bat sor daitekeenik pentsatu; atzean beti egon behar du alde irrazional indartsu batek. Eta horretan nazio pertinentziak hartzen du indar gehien. Agian, egin behar dena da nazioaren ideia zabaldu, eta jende gehiago egin ideia horren parte; hau da, nazio inklusiboago bat eraiki beharko litzateke. Horrek eskatzen du errelato berri bat sortzea, kontakizun berri bat egitea, eta, noski, “euskal” sinboloak lautotzea.

Independentziara bidean, zein lirateke epe labur-ertainera begirako apustuak?

Apustuek aurkitzen garen faseari erantzun beharko liekete. Esan genezake erabakitzeko eskubidea gehiengoak onartzen duen ideia dela, beraz, zein litzateke hurrengo geldialdia? Zer erabaki nahi den izango da definitu behar den hurrengo elementua. Ezin da esan dena nahi dugula erabaki, dena ezerezaren sinonimoa baita. Euskal askapen mugimenduak proiektu bat definitzen joan behar du, eta horren araberrako apustuak egin beharko ditu. Zein da gure helburu estrategikoa, estatu jakobino bat, ala gure balioekin estuago lotzen den estatu konfederal bat? Eskaintza bat zehaztu eta helburu argiak behar ditu gehiengoak artikulatzen hasteko.

Zein da egun euskal askapen mugimenduaren osasuna?

Aurrez esan bezala, birziklatze momentu batean dagoela esango nuke; *impasse* momentu batean. Abagune baten erdian ere aurkitzen da: edo birziklatzen da edo eusten die iraganeko mitofultsuei. Beraz, ea arin pasatzen duen “aitaren heriotzak” eragin dion momentu traumatiko hau, nahiz eta jakin batzuk kanpoan geratuko direla –sortu den muntroa handia delako–. Ikusiko da nola gainditzen duen fase hau, baina bitartekoak behar dituz ahalik eta hobekien gainditzeko. Bitarteko horietako bat izan daiteke izan duen espiritua- ren argazki bat egin eta ohartzea egun ez diola balio. Errezeta ona izan daiteke gaixoarentzako.

Independentzia, zertarako?

Sinpleenera joanez, batek behin esan zidanari helduko diot: «Zertarako nahi duzue gehiago, autonomia nahikoa baldin badaukazue?». Erantzuna oso erraza da: «Eta zergatik ez osoa izan?». Nik horra eramango nuke, sinpleenera. Autonomia mugatua badaukat, zergatik ez izan gehiago, are, ahalik eta gehien? Finean, burujabetza osoa izateko, jendeak hanka sartu eta ardurak hartzeko aukera izan behar du. Jakin badakit, baina, horrek ez duela konbentzitu gabe dagoena besterik gabe konbentzitu.



Juanan RUIZ | ARGAZKI PRESS



IKUSMIRA

ONDO PASATZEKO ESKUBIDE ETA ASKATASUN BERDINA?

Inauteriak egunerokoa hankaz gora jartzeko egunak omen. Ez dirudi egia denik. Egunerokoa benetan hankaz gora jarriko baltz, egunerokoaren oso desberdina litzakeen errealitate horretan ez lirateke kabituko eraso sexistak. Horiek badaude egunerokoan; gehiegi, maizegi, bortitzegi, ohikoegi. Piraten, azafaten, behien, atsoen, indioen, txinatarren, tximinoen, sevillarren azpian ezkututzen diren erasotzaileek ezin dute ezkutatu barrukoak, benetan direna. Ezin diote eutsi besteen ipurdiak eta bula-

rrak bereak bailiran ukitzeko tentazioari. Mozorroari gailendu egiten zaio emakumeak begiratzeko duten modu ez osasungarri hori. Eta, batzuetan, gainera, taldean hauspotu egiten da lainez mingarri hori... Lantzen, Tolosan, Altsasun, Gasteizen eta toki guztietan, tamalez. «Ez jarri horrela neska, ez da hainbestera, inauterietan gaude!». Horixe, inauterietan gaude zu eta ni, berdinetik berdiner. Eta ondo pasatzeko eskubide eta askatasun berdina daukagu. Edo ez? amagoia.mujika@gaur8.info

HAURRAK GUTXI JATEN DU?

Haur elikaduran okerreko uste asko behera botatzen dabil Iñaki Irastorza pediatria

 **OSASUNA** / Nerea Goti

«Mi niño no me come. ¿Qué come mi niño?» EHUren programa pilotu bat da, gurasoei, irakasleei eta eskola jantokietako begiraleei zuzendutakoa. Hitzaldi formatua dauka eta Iñaki Irastorza espezialista da hizlaria. Haurren elikadurari buruzko gezurrak zuzendu eta gomendioak ematea ditu helburu nagusi egitasmoak.

Haurren elikadurak buruhauste bat baino gehiago ematen du bai etxe askotan bai ikastetxeetako jantokietan. Arazo horri erreparatuta eta haurren elikaduraren inguruan dauden okerreko usteak eta gezurrak zuzentzeko helburuarekin, “Mi niño no me come. ¿Qué come mi niño?” titulupeko hainbat hitzaldi eskaintzen ari da Iñaki Irastorza Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko irakasle eta pediatria.

Solasaldi horiek EHUk martxan jarri duen izen bereko kanpainaren barruan daude, eta ez dira gurasoentzako bakarrik, mezua irakasleei eta jantokieta-ko begiraleei bereziki zuzenduta baitago. Haurren elikadura aipatzen da, baina, Irastorzak dioenez, edoskitzaroan beharrezkoa den elikadura berezia kenduta, urte bat edo bitik aurrera umearen eta helduaren oinarritzko elikadura berdinak izan behar dira.

Oso ohikoa da gurean, hain justu ere, kanpainari titulua ematen dion esaldi entzutea: «Umeak ez du jaten». Bada, horren atzean okerreko usteak daudela dio Irastorzak. Bere esanetan, gurasook edota jatordue- tan begirale aritzen direnek ulertu behar dute kantitatea gutxienekoa dela. Are gehiago esaten du: «Umeak zenbat erabakitzen du, gurasoek zer».

Estatu espainoletik kanpoko hainbat herrialdeetako ospitale- tan pediatria kontsultetan lanean egon ostean egiaztatu du Irastorzak Euskal Herriko eta Kataluniako ospitaletan egiten diren kontsulten portzentaje altu baten arrazoia umeak gutxi jaten duen ustea dela. Bere esanetan, kezka hori kontsulten %7 eta %10aren artean dago, eta hori «astakeri bat da».

Dioenez, horrela zabaldu bada ere, gure gizartean ez dago des- nutriziorik, eta, egon bada, zain-

tzan arduragabekeria egon dela- ko da. Ume bat jatu on izatea asko jatearekin lotzen omen du- gu. Pentsaera horrek badu arra- zoi bat, kontatzen duenez, gerra osteko goseteak bizi izan zituz- ten gure amamei entzundako «pentsamendu atabikoa» barne- ratu dugu, eta hor oker gabiltza. Argi azaltzen duenez, «haur bat 10-12 egun egon daiteke oso gu- txi jaten eta ez zaio ezer gerta- tzen». Nabarmentzen duenez, ume potolo bat ez da argal bat baino osasuntsuagoa, eta balite- ke alderantziz ere izatea etorki- zuneke osasunari begira. Adina- ri dagozkion taulen barruan egon beharko litzatekeen hau- rraren pisua eta altuera guraso- en genetikak aginduko du neu- rri handi batean.

Irastorzak nabarmentzen du, edozein kasutan, bizitzaren le- henengo 1.000 egunetan hau- rraren osasuna oso lotuta dago- ela amaren ohiturekin. Azaltzen duenez, haurdunaldiaren aurretik eta haurdunaldian zehar obesoa den ama baten seme-ala- bak arrisku gehiago dauka hel- du obesoa izateko. «Edoskitzaro- an, umeak pertzentilen barruan koskortu behar dira, ez gara ume potoloak izaten saiatu be- har, dagozkien mailetatik gora

Iñaki Irastorza
gastroenterologoa eta
Gurutzetako
Unibertsitate Ospitaleko
irakasle eta pediatria da.
EHU





«EZIN DA AMORE EMAN, BAINA GATAZKA SAIHESTU»

Beste gauza askotan bezala ondo jaten ere ikasten da, eta, txiki-txikitatik egiten bada, hobe. Horixe da Iñaki Irastorza espezialistaren mezuaren beste atal bat. 9 eta 12 hilabete arteko haur batek gurasoekin egin behar ditu jatorduak, eta gurasoek afariaren ordua haurrarenera egokitu behar dute, «osasungarriagoa eta europarragoa da eta». Lehenik eta behin, gurasoak eredu izan behar direla dio, kontuan hartu behar baita «imitazioagatik» ikasten dugula tximinotik gatozen gizakiok. Haurrak elikagairen bat bereziki gorrotatzen badu «ez zaio ematen», baina, hori bai, zapore ezberdinak dastatzen ikasten denez, haurrei irakatsi egin behar zaie, «tematia baina gogaikarria eta hertsagarria izan gabe».

Zapore berriak sartzeko, eta edozein adinerako balio du gomendioak, elikagai berriaren sardexkada bat ematea eta prisarik gabe kantitatea handitzen joatea da giltza, baina liskarrik sortu gabe. Adibide gisa jartzen du tabakoa edota garagardoa lehen aldiz probatzean sortzen duten atsegin eza. Planteamendua da jatera jartzean lehen ariketa gisa elikagai berriaren kantitate txiki bat probatzen eman eta esatea “jan egin behar duzu, askarira arte ez duzu-eta besterik jango”; aurrerago bi sardexka izango dira, eta, urtebetera, plater osoa. «Kirolean bezala, praktikatzen ez baduzu ezin duzu maratoirik egin, jota bukatuko baituzu», dio Irastorza. Amaitzeko, argi dauka umeak kantitatea erabaki behar duela, eta, gurasoek, berriz, produktua eta honen kalitatea.

hazten direnek arrisku gehiago dituzte-eta gehiegizko pisua, artrosia, miokardioko infartu zorroztza, garun-infartua... izateko. Tabakoaren beraren aurretik obesitatea da gure gizartearen gaitasun kronikoen lehenengo zergatia».

PROTEINA GUTXIAGO

Bestalde, «esne asko edatea oso osasuntsua da» entzunda barneratu omen dugu esne asko edateren ohitura. Hitzaldietan Irastorzak nabarmentzen duenez, egunean esne kontsumoa 375 eta 500 mililitroren artean egon beharko litzateke; hasierako urteetan, gainera, adinari egokitutako esnekiak hartu behar litzukete haurrek. Hortik gorako kontsumo bat egiteak ez du zertan esan nahi haur hori hobeto elikatuta dagoenik.

Bestalde, haragia desmitifikatzeko deia ere egiten du adituak. «Barneratuta dugun ‘umeari, afaltzeko, oilasko bularra, legatza, haragi-bolak... ematen dizkiot’ kontzeptu hori okerra da». «Umeen dieta jatorri begetaleko elikagaietan oinarrituta egon behar da. Jaten dugunaren zati nagusia lehengo platerak izan behar dira: barazkiak, lekaleak,

Haurrei osasungarri jaten irakasteko hainbat gomendio ematen ditu Irastorzak eskaintzen dituen hitzaldietan.
THINKSTOCK

patatak, arroza, pasta eta okela kantitate txikian. Hori, osasuntsuagoa izateaz gain, merkeagoa ere bada, bi kilo haragi erosteko 24 euro behar dituzu, eta diru horrekin barazki asko erosi ahal da!», azaldu dio GAUR8ri.

Beste datu esanguratsu bat ere ematen du Irastorzak: egun EAEn umeek jaten dutenaren %22 jaten dute proteinetan, hau da, «hartu beharko luketenaren proteina kopuru bikoitza hartzen ari dira», nabarmendu du.

«ZUKUEK EZ DUTE EZER»

Postreen atalean sartuta, baiez-tapen argi bi egiten ditu Irastorzak: natillak eta txokolatezko kopak asteburuan jateko dira, zerbait berezi gisa, eta, zukuak, etxekoak badira ere, «ez dute ezer»; beraz, horiek ere astean behin, eta inolaz ere frutaren ordezkoko. «Frutaren zukuak ez du ezer osasungarri ematen», adierazten du irmo Gurutzetako Ospitaleko espezialistak.

Fruta eta barazkiek duten onena zuntza da, nabarmentzen duenez, eta ematen dituzten bestelako bitaminak ez dira gure gizarteko umeen osasunerako hain garrantzitsuak. «Goxoak dira, baina etxean eginak izan

arren oso zuntz gutxi dute», adierazten du. Adibide argigarria ere jarri du: «Laranja batek 4,7 gramo zuntz dauzka; etxeko laranja zuku batek, berriz, 0,7 gramo. Beraz, askoz errentagarriagoa da laranjaren zortzirena ematea, zuku batek beste zuntz daukana. Gainera, bide batez fruta jaten irakasten ari gara». Beraz, etxean egindakoa edo erositakoa izan, zukuak ez dauka nutrizio baliorik, eta gertuago dago ura azukrearekin nahastuta duen edari batetik fruta ale batetik baino.

Osasuntsu jatea eta nutrizio ohitura osasungarriak sortzea hitzaldien helburu nagusi izanik, Irastorzak planteatzen du barazkiak jateko era desberdinak probatu beharko liratekeela umeak ez aspertzeko. Dioenez, Euskal Herrian barazkiak oso era gutxitan prestatzera ohituta gaude: porrusaldak eta patatekin egiten ditugun lekak, adibidez. Horregatik, proposatzen du barazkiak jateko beste era batzuk ere baliatzeko, gure kulturaren hain ezagunak ez direnak. Bere aholkua: mila errezeta biltzen dituen liburu horietako bat erosi eta erraz prestatzen diren platerekin probatzen hasi.



Orduak ematen ditu egunero Lore Amenabar irurarrak akordeoiarekin praktikatzen. Ura ITURRALDE

infraganti LORE AMENABAR

Helsinkiaraino eraman zuen duela hiru urte bere akordeoi kutunak Lore Amenabar (Irura, 1995) musikaria, ikastera. Oharkabea harrapatu zuen instrumentu honen lekua aldarrikatzen du, asko duela eskaintzeko, «kamaleonikoa» dela. Amesten jarrita, kontserbatorio handi batean irakasle izan nahi luke, baita mundu osoan kontzertuak eman ere.

Lore Amenabar (Irura, 1995) ez da gogoratzen akordeoia jotzen ikasi nahi zuela esan zuen egunaz. «Musikarekiko dudak pasioa nahigabe sentitu nuen, oharkabea esango nuke. Ez dut aukeratu, txikitatik sentitutakoa da», dio. Musika familian betidanik oroitzen du. Bazkalostean, mahai inguruan, kantuan ibili ohi ziren, eta aita eta ama, baita osabak ere, akordeoi jotzaileak ziren. 6 urte-ekin hasi zen Anoetako musika

eskolan eta gaur arte. Finlandian dabil egun, Musikako karrerara egiten Helsinkiako Sibelius Akatemian. Musika eskolan hasi eta lehen bi ikasturteetako musikaren inguruko ikasketen ondoren, 8 urte zituenean alegia, hasi zen akordeoia jotzen. Zergatik hautatu zuen kutuna duen instrumentua ez daki, baina uste du familian hainbeste ikusteak eragina izan zuela. Zaharragoa zuen lehengusua ere erreferentzia zen beretzat garai hartan. Piano ikaslea, musika bere ogi-

bidea egin nahi zuela argi zuen lehengusua, eta, nolabait, ideia haietatik ere arnastu zuen Amenabarrek. Bide horretatik jarraitu zuen nerabezaroan. Institutuko ikasketei eskolaz kanpo egiten zituen musika ikasketak erantsi zizkion, 16 urte beteta zer batxilergo hautatu zehaztu behar izan zuen arte. Zalantzarik egin gabe, batxilergo musikala hautatu zuen, Donostiako Zubiri Manteon. Bertan, derrigorrezkoak ziren hainbat irakasgai zituen, eta osagarriek musikare-

kin zuten zerikusia: Musikaren Historia, adibidez. Selektibitatea egin eta etxetik hegan egiteko unea ere heldu zitzaion, noski. Bere begien aurrean mundu zabal bat ireki zen. Argi zituen bi gauza: musikarekin jarraitu nahi zuela eta irakasle on bat zegoen tokian egin nahi zituela ikasketak. Hiru aukera aipatzen ditu. Donostiako Musikaren ikastea, Iñaki Alberdi irakaslearekin; Zaragozara joan, han baitago miresten duen Angel Luis Castaño; edo muga gehiago gainditu eta Helsinki joan, Mika Väyrynen eskuetan jartzeko. Azken aukera hori hautatu zuen, bai irakasleagatik bai etxetik ateratzeagatik ere. Mundua ikusteko goseak berak pisu handia izan erabakian. «Gurasoek aukera eman zidaten kanpora joateko, bai ekonomikoki eta baita emozionalki ere, eta egia esan animatu egin nintzen etxetik atera nahi nuelako. Aukera nuela ikusita, eta nire irakasle gogokoenetako bat Sibelius Akatemian zegoenez, ez nuen bitan pentsatu», dio. Formazio akademikoaz gain, kanpoan pertsona bezala ere norbanakoa hazi egiten dela baloratzen du. «Oso aberasgarria da zure habitat naturaletik atera eta mundua ezagutzea. Musika oso gauza internazionala da eta oso aberasgarria da. Nire herria ikusita nuen, eta hortik kanpo zer zegoen ikusi nahi nuen». Hiru urte daramatza Helsinki. Kontatzen duenez, karrerak Finlandian hiru urtekoak dira, beraz, aurrean lortuko du gradu titulua. Hori lortzeko ordubeteko kontzertua eskaini behar du, eta horretan dabil orain burubelarri, behin eskainiko duen errepertorioa irakaslearekin aukeratu, entseatzen. «Irakasgai gutxiago daude azkenengo ikasturtean, baina gehiago ikasi behar da kontzertua prestatzeko», azaldu du, erantsiz, graduazio data jakin berri duela: datorren apirilaren 18an izango da. Urduri eta gogotsu dago. Errepertorioa osatzeko hainbat arau bete behar dira estiloari dagokionez. Adibidez, obra barroko bat eta obra original bat jo behar dira, hau da,

Musika karreraren graduatzeko eskaini behar duen ordubeteko kontzertua prestatzen dabil. Hitzordu garrantzitsua apirilaren 18an du. Ondoren, master eta espezializazioei ekingo die

akordeoirako espresuki idatzita dagoen obra bat.

Graduatu ondoren ikasten jarraitu nahi du. Buruan ditu bi urteko master bat eta akordeoi pedagogian espezializazio ikasketak. Orotara, Helsinkin bost urte eta erdi egotea aurreikus-ten du, beraz. Momentuz, Eus-ka Herrira udako eta Gaboneta-ko oporrak igarotzera baino ez da etorriko.

OHITURETARA OHITZEA

Finlandian egindako hiru urteek eman diote jada bertako bizi es-tilora ohitzeko denbora, baina ez ditu ahaztu hasiera batean harridura eragin zioten usadio-ak eta egoerak. Adibidez, kalean inor ez ikusteak arreta handia ematen zion, alegia, kalean jen-dea berriketan ez ikustea. Kli-mak, hotz latzak eta garaiaren arabera argitasun faltak, zeriku-si zuzena dute horretan, noski. «Jendea etxetik lanera eta lane-tik etxera doa, agian lanetik denda edo tabernaren batera, baina kanpoan behin ere ez dira gelditzen. Gero ulertu nuen hotz handia egiten duela horre-tarako!», dio irriz. Otorduetako garaietara ere ohitu da: 11.30etik 12.00etara bitartean bazkaltzen dute, eta, afaldu, berriz, 17.00ak aldera, 18.00etan asko jota.

Hizkuntza aldetik ere trebe dabil. 16 urterekin batxilergo musikala hautatuta, ingelesare-kin «serio» jarri zen. Eta Sibelius Akatemian klase guztiak hiz-kuntza horretan diren arren, egunerokoan moldatzeko fin-landiera ere irakasten dute le-hen ikasturtean. Amenabar bere kabuz ere ikasten ari da.

Herri mina, berriz, nazioarte-ko beste gazteekin lasaitzen du. Etxebizitza partekatzen du eta lagun asko ditu. Bertakoekin ba-du harremana, baina bera beza-la atzeritik heldutakoekin beste lotura bat egiten dela uste du, sentimendu berdinek batzen di-tuztelako: etxeko falta, gertuko-en hutsunea... Atzerrian oso zo-rioritsu izan arren noiz edo noiz sentitzen direnak.

Etorkizuneko asmoez edo ametsez mintzo, berehala eran-tzutun du. Helburua akordeoi jotzaile profesionala izatea:

«Akordeioa jotzea obraren parte bilakatzea da. Ez dut beste ezertan pentsatzen. Musika leuna bada, neu ere leun bihurtzen naiz. Izaera badu, baita neuk ere. Obrarekin sinbiosia lortzea da»

«Musikaz bizi nahiko nuke, bai kontzertuak ematen eta bai irakasle izaten. Hori nahiko nuke. Klaseak eman, amets egiteaga-tik, akademia handia baten, ize-na duen batean, Helsinkiko Si-belius den bezala, Musikene den bezala, Donostiako Kontserbato-rioa den bezala... Eta kontzer-tuak mundu guztian emango nituzke. Horretan ari naiz gogor saiatzen. Ulertzen dut eta jaki-tun naiz ez dela erraza, eta beste milaka gazte daudela ni bezala-xe, baina saiatzen ari naiz».

Bere jaioterrian inor profeta ote den galdetuta, dio egun ez zaiola batere erraza Euskal He-rrian emanaldiak eskaintzea. Le-henik eta behin, Helsinkitik etortzen den garaietan udaleta-

Lore Amenabar, Donostiako Tabakalera berrituan. Egunen batean Gipuzkoako hiriburura bueltatzea ez du baztertzen. Musikenen aritzea gustatuko litzaioke. Ura ITURRALDE

ko kontzertuen agendak urria-goak izaten direlako. Bestalde, Gabonetako bi asteek adibidez, kontzertu bat prestatzeko adina denbora ematen ez diotela azal-tzen du. Hala ere, Donostiarekin lotura ez du eten eta hitz zora-garriak baino ez ditu Musikene-ko Iñaki Alberdientzat –«mais- paregabea», dio–, baita Kontser-batorioko Salvador Paradaren-tzat ere. Nolabait beraiek dira hemengo musika munduarekin uneotan dituen “zubiak” eta la-guntza handia eskaintzen diote-la azaldu du.

AKORDEIOIAREN AURRERAPAUZOAK

Akordeioa oso instrumentu «ka-maleonikoa» bezala deskriba-tzen du, edozein musikara «as-ko» egokitzen delako. Azken hamarkadotan bizi izan duen garapena aipatzen du. Horrek, bere ustez, eraman du akordeioa egun dagoen lekura. «Orain dela 50 urte akordeoiak eman zuen pausu handi bat, nazioarte mailan. Orduan, nolabait, adierazi zuen errepertorio originala ba-

duela eta ‘hau, hau eta hau’ jo-tzea baduela. Izugarri egin du aurrera, baina oraindik bidea gelditzen zaio erabat erakutsi dezan zer den. Bals eta tangoez aparte, badakigu zerbait gehia-go jotzen!», aldarrikatu du.

Kanpotik jendeak nola ikus-ten duen galdetuta, uste du gaur egun asimilatuta dagoela akor-deoiak zertarako balio duen, eta zentzu horretan «oso errecono-zituta» dagoela iritzi du. Hori bai, Amenabarrek eranstun du «beste instrumentuen alturan jartzea» falta zaiola.

Akordeioa jotzen duenean no-la sentitzen den jakin nahi du-gu. Libre, aske, bere baitan mur-gilduta. Bera, instrumentua eta musika baino ez daude une ho-rretan. «Akordeioa jotzea ni neu obraren parte bilakatzea da. Ez dut beste ezertan pentsatzen. Obra leuna bada, neu ere leun bihurtzen naiz. Izaera badu, bai-ta neuk ere. Obrarekin sinbiosia lortzea da, biek bat egitea».

Oihane Larretxea de la Granja





Iratxe Esnaola
Hezkuntzan doktorea

Mugikorrarekiko menpekotasuna antzerkira

Sarean kateatuak» antzez-lana izan da 2016ko Poltsiko Antzerkia jaialdiaren irabazlea. Nomofobikak taldeak aurkeztu du, hirukote batek: Olatz Beobide, Amaia Lizarralde eta Belen Cruz. Hirurak, astelehen iluntzean Euskadi Irratian izan ziren, «Arratsean» saioan. Ia hoge minutuko elkarriketa, oso alaia.

Bertan azaldu zuten proiektu honen bilakaera. Nola arratsalde batean elkartu ziren, zerbait berria sortu asmoz eta elkarrekin lan egiteko gogoari erantzunez. Lehendabiziko arratsalde hartan atera omen zuten gaia: mugikor eta sare sozialekiko dugun menpekotasuna. Hortik dator, hain justu, taldeari jarri dioten izena: Nomofobikak. Nomofobia gaixotasun bat da, eta tratamendua du. Txoko honetan bertan landu nuen gaia, 2014ko azaroan (http://www.naiz.eus/es/hemeroteca/gaur8/editions/gaur8_2014-11-01-06-00/hemeroteca_articles/nomofoboa-zara). Bertan, literalki, hau nioen: «Ingeleseko *no-mobile-phone phobia*-ren laburdura da eta kalera mugikor gabe ateratzeko beldur irrazionalari egiten dio erreferentzia. Hau da, kobertura edo bateria falta dugunean, mugikorra etxean ahaztu edota ondo funtzionatzen ez duenean sentitzen dugun antsietatea da nomofobia. Ikerketek diotenez, jendartearen gehien-goak sufritzen du gaitz edo patologia hau, 18 eta 24 urteko gaztetxoaren artean are zabalduago dagoela». Eta «Sarean kateatuak» antzezlanak ikustera joaten direnei, galdera berbera egingo diete, zeharka: nomofobia al zara?

Antzezlanean, nomofobia duten bi lagunak eta psikologo baten papera betetzen dituzte aktoreek. Nomofobia duten bi lagunak terapiara joan dira, baina psikologoa berak ere nomofobia du. Inoiz ez omen dute mugikorra eskuetatik askatuko. Antzezlan osoan eskuetan izango dute. Are, antzezlanean *selfie* bat egin eta bertaratu direnak ere argazkiak atera eta sare sozialetan zabaltzera gonbidatuko dituzte. Honela zioten irratiko el-

karrizketan: «*Selfie*-a instantea da, horzaudela konpartitzea, ez bizitzea bakarrik; egon baino gehiago, jendeak jakin dezala egon zarela. Izan ere, inportantea konpartitzea da, ez egotea».

Ziotenez, bertaratzen direnekin nolabaiteko terapia bat egin nahi dute, norbera bere nomofobiaren gainean hausnartzera eramanez. Test bat dute, galderekin, ikusleek menpekotasun horren kontzientzia har dezaten. Esaterako: kalera mugikorrik gabe ateratzen bazarete, urduri jartzen zarete? Edo mugikorra itzali behar duzuenean (ospitalean edo zineman) burukomina izaten duzue? Eta nomofobia dutela konturatuko omen dira segituan. Eta horrekin terapia kolektibo gisako bat bideratu nahi dute. Baina magnifikatuz eta umore kodean, egoera larri bat islatzen saiatuz.

Poltsiko Antzerkia jaialdia euskarazko formatu txikiko antzerki sorkuntza eta ekoizpena bultzatzeko asmoz sortu zen. Hau da, taberna eta

bestelako areto txikiak euskarazko antzezlanak eramateko helburuarekin. «Sarean kateatuak» antzezlanak lau emanaldi programatu ditu oraingoz: otsailaren 17an (Scanner tabernan, Donostian), 18an (Sidi-kauki tabernan, Intxaurrondon), 19an (Jolas-etxean, Añorgan) eta 20an (Le Bukowski Musika Klubean, Egian).

Garrantzitsua da menpekotasun eta fobia berri honen kontzientzia hartzea, eta mugak jartzea modu naturalean ateratzen zaizkigun menpeko jarrrera horiei. Non eta norekin gauden zainduz. Nomofobia ez baita gaztetxoaren arazo bat. EHUn Psikologia Klinikoko katedradun Enrique Etxeburuak «bizitza errealarekiko interes eza» deitzen dio, unean unekoa bizi beharrean, mugikorrarekin unea konpartitzeko ekintzan fokua jartzeari. Eta maila berean kokatzen du jasotzen diren mezuei berehala erantzutea, bakarrik edo norbaitekin egon eta testuingurua edozein delarik ere. Horrelakoak izan nahi al dugu? •



Nomofobia gaixotasun bat da, eta tratamendua du. THINKSTOCK

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



CASTELLANO BILDUMA. BIBLIOTECA NACIONAL DE ESPAÑA

BILBOKO LEHEN ANTZOKIA, 1834TIK 1886RA BITARTEKOA

XIX. mendeko bigarren erdialdean ateratako argazkian Bilboko lehen antzokia ikus daiteke, 1834. urtean eraikia eta 1886. urtean eraitsia, txiki geratu zelako eta bere egiturak kalte larriak jaso zituelako Karlistaldietan. Toki horretan bertan inauguratu zen 1890. urtean Arriaga antzokia, dagoeneko Bilbok 50.000 biztanle zituen garaian. Antzokiaren atzeko partean, San Nikolas eliza eta Mallonako hilerria ikus daitezke, Begoñako santutegiaren goialdean. Lehen lerroan, berriz, Bilbo-Tutera eta Bilbo-Portugalete ibilbideak osatzen zituzten merkantzia-trenen trenbidea ikus daiteke. Argazkia Espainiako Liburutegi Nazionaleko Castellano bildumakoa da. Bilduma benetan bikaina da, ikuspegi panoramikoak zein erretratuak jasotzen dituen. Bildumako argazki guztiak 1853tik 1880ra bitartean ateratakoak dira.

INFO



IRRATIA

ENTZUTEKOA DA KONTATZEKO GAUDE

10 URTE

DONOSTIA 99,2
TOLOSALDEA 97,7
GOIERRI 106,7
BERGARA 100,2

ARRASATE 106,1
UROLA 107,7
KOSTA 107,1
BILBO 102,3


DURANGALDEA 100,7
OTXANDIO 90,4
IRUÑERRIA 106,7
GASTEIZ-LAUTADA 103,8

INFO



IRRATIA

6 02 13



9